

EAEko ekonomiaren urteko txostena 2012

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

economia@ej-gv.es

945-01 90 77

Argitaratzailea: Eusko Jurlaritzaren Ogasun eta Finantza Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526


AURKIBIDEA

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA	1
EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA	8
Munduko ekonomiaren bilakaera	8
Analisia herrialdeka	10
Espainiako ekonomia	14
EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA	16
EKOIZPEN ARLOAK.....	16
Sarrera	16
Lehen arloa	17
Industria	18
Eraikuntza	21
Zerbitzuak	23
ESKARIA	25
Sarrera	25
Gastua azken kontsumoan	26
Kapital eraketa gordina	28
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	29
LAN MERKATUA	34
PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK	41
ARLO PUBLIKOA	48
FINANTZA ARLOA	51

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

Susperraldi ahuleko bi urteren ondoren, 2012. urtean EAEko ekonomiak oso beherakada garrantzitsua izan zuen BPGan, Eustatek %-1,2an kalkulatu baitu. Hauxe da EAEk lau urteko epealdian bizi duen bigarren atzeraldia, eta 2009koa bezain sakona izan ez den arren, erakutsi duen bilakaerak iradokitzen du denbora gehiago beharko dela oraingo atzeraldi honetatik irteteko. Barne eskariak pairatu zuen uztegi bizi dago jaitsiera horren oinarrian, kanpo saldoak hazkundera ekarpen positibo bat, eta aurreko urteetako baino handiagoa, egin zion bitartean. Urtean zehar erakutsi zuen hiruhilekoko norabideak egoera gero eta okerragoa zela adierazi zuen, urte hasierako %-0,4tik azken hiruhilekoan jaso zen %-1,7ra. Alderaketa bat egiten, EAEko ekonomiak Espainiakoaren antzeko bilakaera izan zuen (%-1,4), baina Europako batez besteara baino nabarmen okerragoa (Europar Batasunaren hazkunde tasa %-0,3 izan zen).

EAEko eta munduko ekonomiaren hazkundera
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta NDF.

Hazkunderaren moteltzea orokorra izan zen ekonomia eremu guztietan eta munduko ekonomiak %3,2ra leundu zuen bere gehikuntza erritmoa. Tasa hori aurreko bi urteetako baino nabarmen apalagoa da, baina 1981etik 2010era bitarteko epealdian lortu zuenaren

2012ko urteko txostena

antzekoa da. Beste urtebete batez, garapen bidean dauden herrialdeek egin zioten ekarpen handiena munduko ekonomiaren hazkunderari –munduko gehikuntzaren %80 baino zertxobait gehiago herrialde horietan sortu zen-, talde horretako ekonomia gehienek erritmo sendoa lortu zutelako. Hala ere, ezin izan zuten aurreko urteetako erritmoak berdinu. Hain zuzen ere, Txinak %7,8ko hazkundera eskuratu zuen 2012an, oraindik esanguratsua den balioa baita, baina azken hamabi urteko txikiena. Beraren bezero nagusien ahultasunak, bereziki Europakoena, barne merkatua sustatzera behartu zuen Txina. Indiak, berriz, ia erdira murriztu zuen bere hazkunde erritmoa, Brasilen gehikuntza tasa %1aren azpitik geratu zen bitartean.

EKONOMIA EREMUEN PISUA, HAZKUNDEA ETA EKARPENAK

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
Ekonomia aurreratuak	50,1	1,2	0,6	Garatu gabeak	49,9	5,1	2,6
AEB	18,9	2,2	0,4	Txina	14,9	7,8	1,2
Eurogunea	13,7	-0,6	-0,1	India	5,6	4,0	0,2
Japonia	5,6	2,0	0,1	Errusia	3,0	3,4	0,1
Erresuma Batua	2,8	0,2	0,0	Brasil	2,8	0,9	0,1
Kanada	1,8	1,8	0,0	Mexiko	2,1	3,9	0,1
Besteak	7,3	1,8	0,2	Besteak	21,5	4,1	0,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Ekonomia garatuen artean, AEB eta Japonia nabarmendu ziren, biek BPGa %2aren inguru areagotu zutelako, aurreko urteko emaitzak hobetuz. Horri esker, AEBek hazkunde neurritsuko hirugarren urtea kateatu zuen, 2009ko beherakada bortitzaren ondoren. Herrialde horretan onartu ziren pizgarriak, batez ere moneta arlokoak, daude emaitza on horien azpian, enplegu sorrera esanguratsua eta langabezia tasaren jaitsiera ekarri baitituzte. Japoniak, berriz, atzean utzi zuen 2011ko makalaldia eta tasa positibo bat lortu zuen 2012an, 2011ko martxoan gertatu ziren lurrikararen eta ondorengo tsunamiaren ondorengo berreraikitze lanek baldintzatuta. Lan horiek bertako ekonomia sustatu zuten urteko lehen seihilekoan, baina bigarren erdian oso zenbateko apalak jaso zituen.

Europa bilakaera on horretatik urrun kokatu zen eta atzeraldian sartu zen berriro, oso sakona ez bazen ere. Zehazkiago adierazita, Europar Batasunak %-0,3ko tasa jaso zuen urte osoan,

periferiako herrialde batzuei kalte egin zien zor subiranoko krisiak, ekonomia eragileen igurikimen ezkorrek eta europar erakundearen erantzun eskasak eraginda. Hazkunde tasaren apaltzea orokorra izan zen eta Europako herrialde nagusi batek ere ez zuen aurreko datua hobetu. Alemaniak lortu zuen hazkunde tasa handiena (%0,7), baina emaitza hori 2011n jaso zuenaren laurdena baino gutxiago izan zen. Erresuma Batuak ere balio positibo bat (%0,3) eskuratu zuen, baina oso txikia, batez ere kontuan hartzen bada urte horretan bertako hiriburuak joko olinpikoak antolatu zituela eta horrek bultzada bat eman ziola ekonomiari. Frantzia geldialdian sartu zen eta Espainiak eta Italiak oso beherakada nabarmenak izan zituzten urte horretan.

BPG ERREALAREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Munduko ekonomia	5,4	2,8	-0,6	5,3	3,9	3,2
AEB	1,9	-0,3	-3,1	2,4	1,8	2,2
Japonia	2,2	-1,0	-5,5	4,7	-0,6	2,0
Txina	14,2	9,6	9,2	10,4	9,3	7,8
Europar Batasuna	3,2	0,3	-4,3	2,1	1,6	-0,3
- Alemania	3,3	1,1	-5,1	4,2	3,0	0,7
- Frantzia	2,3	-0,1	-3,1	1,7	1,7	0,0
- Erresuma Batua	3,6	-1,0	-4,0	1,8	1,0	0,3
- Italia	1,7	-1,2	-5,5	1,7	0,4	-2,4
- Espainia	3,5	0,9	-3,7	-0,3	0,4	-1,4
- EAE	4,2	1,3	-3,9	0,4	0,5	-1,2

Iturria: Eurostat, NDF (Txina) eta Eustat (EAE).


Bizitasuna ahultzen ari zen testuinguru horretan, EAEko ekonomia ia-ia 2012ko hasieran bertan sartu zen berriro atzeraldian, eta %-1,2ko aldakuntza tasa jaso zuen urteko batez bestean. Emaitza horrek amaiera eman zion 2012ean hasi zen suspertzeko joerari eta BPG errealaren maila 2009an lortu zenaren azpitik kokatu zuen. Izan ere, hedatzearen azken urteak (2008) 100eko balioa hartzen badu, atzeraldi handian 96,1eko mailara jaitsi zen, eta ondorengo bi urtean 96,9ra igo zen arren, 2012an %95,8ra jaitsi da. Beraz, BPG errealak lau puntu luzeko jaitsiera pilatu du azken lau urteko epealdian. Termino nominaletan, BPGaren aldakuntza tasa %-0,1 baino ez zen izan.

2012ko urteko txostena


Ekoizpenaren bilakaera negatiboak aurreko urteetan galdu zen enpleguaren zati berreskuratzeko aukera uxatu zuen eta, aitzitik, 2012an lanpostuen galera (%-2,5) oso garrantzitsua izan zen, aurreko bi urtekoa baino are handiagoa, alegia. Horren ondorioz, krisiaren aurretik zegoen enpleguaren %8,5 galdu da dagoeneko. Hain zuzen ere, azken lau urtean, 83.000 lanpostu baino zertxobait gehiago desagertu dira eta haietatik 23.000 inguru 2012an galdu ziren. Enpleguaren jaitsierak %12,1era igoarazi zuen langabezia tasa urteko batez bestean, 2011ko datua puntu bat baino gehiago goraraziz eta krisia hasi zenetik zortzi puntu baino gehiago igoz.

BPGren eta enpleguaren bilakaera EAEn

BPG. 2008 = 100



Enplegua. 2008 = 100




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

EAEko barne produktu gordinaren jaitsieraren jatorria barne eskariaren beherakadan dago, kanpo saldoaren ekarpen garrantzitsuak, puntu batekoa baino zertxobait handiagoa izan batzen, neurri batean konpentsatu baitzuen. Kanpo saldoaren emaitza ona lagundu zuen faktorea inportazioen bilakaera (%-6,4) izan zen, barne eskariaren ahultasunak berak kanpoko erosketak gutxitu zituelako. Orobat, esportazioek ere beherakada garrantzitsua (%-5,2) ezagutu zuten, baina inportazioena baino txikiagoa. Bi aldagai horiek joera negatiboa erakutsi zuten bereziki urteko bigarren erdian.


Barne eskarian, kapitaleko eraketa gordinak gutxitu zituen gehien (%-5,4) bere zenbatekoak. Halaber, dagoeneko bost urtez metatu ditu etengabeko jaitsierak. Alde batetik, enpresarien igurikimenak okertu izanak ekoizteko ekipamendua berritzea edo handitzea oztopatu zuen, beraiekin errentagarritasun egokia lortzea kontu segurua ez zelako. Beste aldetik, eraikuntzan eginiko inbertsioak etxegintzaren doikuntza prozesuan murgilduta jarraitu zuen eta, horretaz gain, inbertsio publikoak murriztu behar izan ziren defizita kontrolatu ahal izateko. Aurreko guztiari gehitu behar zaizkio kreditu bat lortzeko zailtasunak, finantza sistema onbideratzeko testuinguru batean.

EAEko BPGari eginiko ekarpenak

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Eskaintzaren ikuspegitik, nekazaritzaz bestelako arlo guztiek beren balio erantsia gutxitu zuten 2012an. Beste urtebete batez, narriadura biziena eraikuntzan gertatu zen, dagoeneko bost urte kateatu baititu balio erantsia gutxituz, higiezin burbuila lehertu ondoren. Sektore honek EAEko balio erantsi osoaren %7,8 bereganatzen du, hots, 2007an zuena baino hiru puntu gutxiago. Horrek agerian uzten du jarduera horretan egin den egokitze handia. Industriak, berriz, %2,4an murriztu zuen bere balio erantsia 2012an, barne eskaria oso ahul zegoelako eta kanpo arloa urtean zehar apalduz joan zelako.

2012ko urteko txostena

Zerbitzuek hobeto egin zieten aurre atzeraldiaren zailtasunei 2012. urtean, baina ezin izan zuten balio erantsia areagotu (%-0,3). Berez, jaitsiera hori nahiko txikia den arren, serie historiko osoko lehena da, zeren eta 2009an zerbitzuek geldotasuna erakutsi zuten, baina zenbaki negatibotan sartu gabe. Oraingo eta orduko atzeraldien arteko aldea arlo publikoaren paperean dago. Izan ere, 2009an zerbitzuetako gainontzeko adarren bizitasun falta konpentsatu zuen, baina 2012an bere gastua egokitzera behartuta zegoen. Beste aldetik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen multzoak jaitsiera esanguratsua (%-1,1) jaso zuen, barne eskariaren ahultasunaren ondorioz. Gainontzeko zerbitzuak jaitsieretatik libratu ziren, baina oso gutxi handitu zuten beren balio erantsia.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Barneko azken kontsumoa	4,1	1,9	-1,7	1,1	0,2	-1,2
Familien kontsumoko gastua	3,6	0,6	-3,6	0,8	0,3	-1,0
Herri administrazioen kontsumoa	6,4	7,0	5,0	2,2	-0,1	-2,1
Kapital eraketa gordina	4,7	-1,8	-14,3	-4,3	-1,8	-5,4
Ekipamenduko ondasunak	4,9	-1,0	-23,2	-2,6	7,1	-4,0
Gainontzekoa	4,6	-2,1	-11,5	-4,9	-5,4	-6,0
Barne eskaria	4,3	0,8	-5,4	-0,3	-0,3	-2,2
Esportazioak	5,4	-0,2	-13,4	7,7	5,5	-5,2
Inportazioak	5,3	-0,8	-14,5	5,9	4,0	-6,4
BPG (m.p.)	4,2	1,3	-3,9	0,4	0,5	-1,2
Lehen arloa	0,0	-6,1	-4,8	20,8	-1,9	5,9
Industria	3,1	-0,7	-12,9	2,0	2,0	-2,4
Eraikuntza	11,1	-5,8	-7,4	-7,9	-5,9	-6,3
Zerbitzuak	4,0	3,4	0,0	0,7	0,8	-0,3
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,6	1,2	-2,8	0,4	0,0	-1,1
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	5,3	6,2	3,4	3,8	3,9	0,0
Gainontzeko zerbitzuak	3,7	3,4	0,0	-0,8	-0,4	0,1
Balio erantsi gordina oinarrizko preziotan	4,4	1,2	-4,3	0,3	0,5	-1,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	2,4	-0,1	1,9	0,2	-0,3

Iturria: Eustat.

EAEko barne produktu gordinaren jaitsiera biziak pentsarazten duenaz oso bestela, 2012an produktibitateak ez zuen gehikuntza apartekorik lortu eta enplegua galdu zen hazkunde gutxiko garaietan (2011n gertatu zen bezala) eta lanpostuak sortu ziren hazkunde biziko garaietan (2007an) eskuratu ziren antzeko irabaziak izan zituen. Horrek adierazten du enpresen langile kopuruaren murrizketa, oso garrantzitsua izan zen arren, apal samarra izan zela. Izan ere, Espainiarekin eginiko alderaketa batek adierazten du BPGaren beherakada (%-1,4) antzekoa izan arren, enpleguaren jaitsiera %4,4 izan zela lurralde horretan eta, ondorioz, produktibitatearen irabazia %3,0, EAEkoa baino askoz ere handiagoa. Enplegu galeraren moteltzea, neurri batean, langile bakoitzeko kostuaren apaltzeak ekarri zuen, bigarren urtez jarraian igoera ez baitzen %1era iritsi. Langile publikoen soldata jaitsi izanak baldintzatu du, hein batean, emaitza hori, baina arlo pribatuan ere oso balio apalak jaso ziren kostuen eremuan.

Jardueraren ahultasunak berak prezioen bilakaera neurritsua erraztu zuen eta BPGaren deflatorea %1,1 baino ez zen hazi 2012. urtean. Bide beretik doa langile publikoei aparteko ordainketa kentzeko erabakia, kontsumo publikoaren deflatorea hirugarren urtez jarraian negatiboa izatera eraman zuelako. Kontsumo pribatuaren deflatorea %2,0 igo zen 2012an, hots, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago. KPI indizeak, berriz, %2,3ko hazkundera jaso zuen, aurreko urtekoa baino askoz gutxiago, bereziki bigarren erdian zergak eta araututako prezioak gorakada garrantzitsuak izan zituzten arren.

EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (EB27=100)	136,4	134,4	134,0	131,5	132,4	---
BPG erreala merkatu prezioetan	4,2	1,3	-3,9	0,4	0,5	-1,2
Enplegua	2,9	0,2	-4,0	-1,3	-0,9	-2,5
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	1,3	1,1	0,1	1,8	1,3	1,4
BPG nominala merkatu prezioetan	7,5	2,3	-5,2	1,8	1,8	-0,1
BPGren deflatorea	3,1	1,0	-1,3	1,3	1,3	1,1
KPI (urteko batez besteak)	2,8	4,1	0,3	1,7	3,1	2,3
Kostu guztiak langile bakoitzeko	4,1	4,7	2,8	1,4	0,6	0,7
Langabezia tasa	3,3	3,8	8,1	9,2	10,8	12,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

Munduko ekonomiaren bilakaera

Finantza krisia hasi zenetik lau urte igaro direnean, munduko ekonomiak ahultasuneko eta ziurgabetasuneko zantzuak erakusten jarraitu zuen. 2012. urtean, susperraldi azkar eta sendo bat bizitzeko aukerak urrundu ziren eta munduko ekonomia oso nabarmen ahuldu zen. Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) arabera, munduko BPGa %3,2 hazi zen urte horretan, aurreko urtean baino ia puntu oso bat gutxiago. Hazkunde erritmoa eremu nagusi guztietan moteldu zen, baina abiadura ezberdinak garbi hauteman ziren. Lan merkatuari dagokionez, langabezia tasak ere bilakaera ezberdinak marraztu zituen. Hala ere, Euroguneko periferiakoak diren ekonomia batzuetan langabeziak erakutsi zuen gorakada izugarria nabarmendu behar da, inoizko mailarik gorenera iritsi baitziren.


EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012
Mundua	4,0	3,2	---	---	---	---
ELGE	1,9	1,2	2,9	2,2	7,9	---
AEB	1,8	2,2	3,1	2,1	8,9	8,1
Japonia	-0,6	2,0	-0,3	0,0	4,6	4,4
EB 27	1,6	-0,2	3,1	2,6	9,7	10,5
Alemania	3,1	0,9	2,5	2,1	5,9	5,5
Frantzia	1,7	0,0	2,1	2,0	9,6	10,2
Erresuma Batua	0,9	0,2	4,5	2,8	8,0	8,0
Italia	0,4	-2,4	2,9	3,3	8,4	10,7
Espainia	0,4	-1,4	3,1	2,4	21,7	25,0
Garapen bidean dauden herrialdeak	6,4	5,1	7,2	5,9	---	---
Asia	8,1	6,6	6,4	4,5	---	---
Txina	9,3	7,8	5,4	2,6	---	---
Amerika latino eta Karibea	4,6	3,0	6,6	6,0	---	---
Trantsizioan dauden herrialdeak	5,2	1,6	5,3	5,8	---	---

Iturria: ELGE, NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.

Azaleratzen ari diren ekonomietan, hazkunde erritmoa moteldu zen 2012an eta urte arteko hazkunde tasa %5,1era iritsi zen, aurreko urteko %6,4aren aldean. Ekoizpenak bizitasun handia erakutsi zuen garapen bidean dauden herrialdeetan, baina ekonomia aurreratuen inbertsio faltak eta jarduera ahulak galgatu zuten haien bilakaera. Izan ere, Txinan inbertsio maila apalak jaso ziren, finantzazio murrizketengatik eta beste herrialde batzuetan instalatu den ahalmen gehiegizkoarengatik. Ahultasuna erakutsi arren, azaleratzen ari diren ekonomien barne eskariak eta garapen bidean dauden herrialdeen arteko merkataritza harremanak trinkotu izanak nolabaiteko erresilientzia eman die nazioarteko ingurunearen narriaduraren aurrean.

Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: NDF eta Eurostat.

2012ko urteko txostena

Ekonomia aurreratuek bizitasunik eza erakutsi zuten garbi eta haietako batzuk atzeraldian sartu ziren berriro 2012. urtean zehar, beste batzuk dagoeneko bizi zuten krisia areagotu zuten bitartean. Hori horrela, herrialde multzo horren batez besteko hazkundea %1,2an kokatu zen, aurreko urtekoa baino lau hamarren gutxiago. Eurogunea izan da atzeraldiak gehien kaltetu duen eremua eta munduko ekonomiaren bilakaera gehien lastatu duena. Europak murrizketa askori egin behar izan zien aurre, kanpoko zein barruko desorekak zuzentzeko neurriek ezarriak. Barneko doikuntzen artean, herrialde batzuen defizit fiskal garrantzitsua, finantza sistemen zorpegabetzea eta Europako ekonomia batzuetan dagoen langabezia tasa altuak nabarmendu ziren. Izan ere, langabezia altuak eta eskari agregatu ahulak sortzen zuten beheranzko espiral batean zeuden.

Inflazioari dagokionez, prezioen bilakaera neurritsua eta egonkorra izan zen mundu mailan, aldakuntza tasak nahiko apalak zirelarik. Garatzen ari diren herrialdeetan, ezaugarri nagusia salneurrien igoera erritmoak leuntzea izan zen, nahiz eta haietako batzuetan, hala nola Indian, altuak izan ziren oraindik. Beste aldetik, ekonomia aurreratuetan, banku zentralak inflazioari buruz ezarri zituzten helburuak arrakastaz bete ziren. Bilakaera horrek sostengua eman zien batez ere Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak, baina neurri txikiagoan Europako Banku Zentralak ere, abiatu zituzten politika oso hedakorrei. Beste aldetik, eskari agregatuaren ahultasunak, soldaten presio baxuek eta oinarritzko produktuek nazioarteko merkatuetan izan zituzten salneurri apalek ere eragin handia izan zuten inflazioaren bilakaeran.

Analisisa herrialdeka

Txinako ekonomiaren hazkundea nabarmen moteldu zen 2012. urtean zehar eta %7,8an kalkulatu da. Esportazioek gutxitzeko joerari jarraipena eman zioten, ekonomia aurreratu gehienetan barne eskaria ahuldu zelako. Beste aldetik, inbertsioak, aurreko urteetan BPGaren hazkundearen erdia baino gehiago ekarri zuen osagaia baitzen, modu esanguratsuan murriztu zuen bere bizitasuna. Inbertsioa makaldu zuten faktoreak honako hauek izan ziren: eraikuntza arloko politika murriztaileagoak, higiezinaren arloan burbuila baten sorrera saihesteko, kontsumo pribatua sustatzeko pizgarri fiskal batzuk ezarri izana, eta finantza sistemaren murrizketa handiak. Kontsumoko prezioen indizea %2,6an kokatu zen 2012an. Datu hori aurreko urtekoa baino txikiagoa da eta Txinako gobernuak markatu zuen helburuaren azpian dago. Langabezia tasa, berriz, %4,1era iritsi zen 2012an eta lan merkatuan egonkortasuneko ibilbide bat erakutsi zuen.

AEBetako ekonomiak erritmo neurrtsuan egin zuen aurrera 2012. urtean zehar eta urte arteko hazkunde tasa %2,2an kokatu zen urte horretan. Iparramerikako herrialde horrek beste urrats batzuk eman zituen sei urte lehenago hasi zen krisi sakona konpontzeko. Hala ere, biztanleko diru sarrera eta enplegu maila 2012an oraindik krisiaren aurrean zeudenak baino txikiagoak ziren. 2012ko lehen hilekoetan, susperraldia biziagoa izango zela ematen zuen, baina suspertzeko zantzu horiek galgatuta geratu ziren, neurri batean, Euroguneko zor subiranoaren krisiagatik eta munduko ekonomiaren hazkunde motelarengatik. Hain zuzen ere, kanpoan saldutakoak urte askoan bizitasun handia erakutsi eta gero, bai esportazioek bai inportazioek apaldu ziren 2012. urtean.

Eskari agregatua, berriz, oso nabarmen leundu zen urte horretan. Administrazioak onartu zituen murrizketa fiskalek higiezin merkatuak suspertzeko erakutsi zituen lehen zantzuak ilundu zituzten. Inbertsioak ere atzera egin zuen hilekoak aurrera joan ziren heinean eta barruko zein nazioarteko ziurgabetasuna areagotu zen neurrian. Inflazioa nabarmen moteldu zen eta estatubatuar KPIa %2,1ean kokatu zen. AEBetan, langabezia tasa %8,1ean kalkulatu zen 2012an. Urte gehienean %8,0aren gainetik egon zen eta irailetik aurrera jarri zen maila horren azpian. Hala eta guztiz ere, iraupen luzeko langabezia tasa inoizko baliorik gorenetara iritsi zen.


Japonian, 2011 txarraren ondoren, ekonomiak bizkortzeko joera berreskuratu zuen eta %2,0ko gehikuntza tasa lortu zuen 2012ko batez bestean. Hazkunde biziena urteko lehen hiruhilekoan gertatu zen eta bizitasuna galdu zuen ondorengo hiruhilekoetan. 2011ko hondamendi naturalaren ondoren abiarazi ziren berreraikitze lanak ziren bizitasun horren oinarria, azken hamabost urteko mailarik gorenera igo baitzuten inbertsioa. Gobernuak kontsumo pribatua suspertzeko neurriak ere hartu zituen, bereziki eraginkortasun energetikoa duten ibilgailuak erosteko.

Yenaren balio irabaziak eta eskari globalak erakutsi zuen ahultasunak Japoniako esportazioak galgatu zituzten. Aitzitik, inportazioak nabarmen areagotu ziren barne eskariaren beharrak ase ahal izateko. Prezioak ez ziren hazi Japonian 2012. urtean eta moneta agintaritzak inflazio helburua igo zuen, inflazioaren gaineko igurikimenak gorarazteko. Langabezia tasa %4,4ra jaitsi zen 2012an, baina iraupen luzeko langabezia tasak agerian utzi zuen langabeen ia %40 lanik gabe zeudela urtebetea igaro eta gero.

2012ko urteko txostena


BPGaren bilakaera zenbait herrialdetan Urte arteko aldakuntza tasak

Frantzia




81-90 91-00 01-10 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012

Alemania




81-90 91-00 01-10 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012

Erresuma Batua




81-90 91-00 01-10 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012

Japonia




81-90 91-00 01-10 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012

India



81-90 91-00 01-10 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012

Txina



81-90 91-00 01-10 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012

Iturria: NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.

Europako herrialde asko atzeraldian murgildu ziren berriro 2012. urtean. Beste batzuk, ordea, ordurako atzeraldian zeuden eta beren egoera okerragotu zuten, zor subiranoaren arazoaren ondorioz. Euroguneko periferian dauden ekonomia horiek langabezia altuko eta eskari ahuleko dinamika negatibo batean sartu ziren, herstura fiskaleko, zor publikoko eta finantza ezegonkortasuneko testuinguru batean. 2011ko azken hilekoetan jarduerak bat-bateko beherakada bat jaso ondoren, 2012ko lehen hiruhilekoan Euroguneko ekonomia jarduerak nolabaiteko egonkortasuna lortu zuen. Hala ere, urteko gainontzeko hiruhilekoetan etengabeko jaitsierak jaso ziren barne produktu gordinaren bilakaeran. Euroguneko hazkunde tasa %-0,6 izan zen urte osoko batez bestean. Europako ekonomia eragileen konfiantzak behera egin zuen nabarmen eta barne eskari makala ekarri zuen berarekin. Beste aldetik, atzerrian eginiko erosketak erabat gutxitu ziren, europar ekoizkinen salmentak nazioarteko merkatuetan 2012an moteldu ziren bitartean, baina esportazioek oraindik hazkunde tasa positiboak jaso zituzten.

2012. urtean, Euroguneko herrialdeen bilakaera ekonomikoak erritmoa gutxitzeko joera erakutsi zuen eta kasu batzuetan hazkunde tasa negatiboa izatera iritsi zen. Halaber, ekonomia batzuek aldakuntza tasa positiboak eskuratu zituzten BPGan, baina aurreko urtekoak baino txikiagoak. Talde horretan, Estonia (%3,2), Eslovakia (%2,0), Alemania eta Irlanda (%0,9), Austria eta Malta (%0,8) daude. Beste herrialde batzuek, hala nola Luxenburgo, Frantzia, Belgika eta Finlandia, zerotik hurbil zeuden hazkunde tasak izan zituzten multzoa osatu zuten. Eta azkenik, Herbehereek (%-0,9), Espainiak (%-1,4), Esloveniak (%-2,3), Txiprek eta Italiak (biek %-2,4arekin), Portugalek (%-3,2) eta Greziak (%6,4) tamaina handiagoko edo txikiagoko jaitsierak pairatu zituzten.

Euroguneko inflazioari dagokionez, kontsumoko prezioen indizea %2,5ean kokatu zen, hots, Europako Banku Zentralak helburutzat hartu zuen %2,0tik urrun. Dena dela, prezioen indizeak moteltzeko joera orokorra erakutsi zuen 2011ko bilakaeraren aldean. Hala ere, salneurriek gorakada esanguratsuak izan zituzten salbuespenak ere egon ziren, hala nola Italia (%3,3) eta Herbehereak (%2,8).

Europako lan merkatuak oso narriatuta jarraitu zuen. Izan ere, 2012. urtean, langabezia tasak berriro egin zuen gora eta %12,0aren inguruan kokatu zen Eurogunean, inoiz baino gorago, aurreko urteko emaitzaren aldean puntu bat baino gehiago igoz. Esparru horretan, Greziak eta Espainiak zituzten arazo handienak, non biztanleria aktiboaren laurdenak baino gehiagok ez baitzuen lanik aurkitu. Europako beste herrialde batzuek, hala nola Austriak, Alemaniak, Luxenburgok eta Herbehereek, langabezia tasa txikiak jaso zituzten, %5,0aren ingurukoak.

Espainiako ekonomia

Espainiako ekonomiak atzeraldian jarraitu zuen 2012. urtean zehar eta BPGaren urte arteko tasa %1,4 jaitsi zen urte osoko batez bestean. Espainiak desoreka garrantzitsuak zuzentzeko beharra pairatu zuen eta ekonomiaren krisiak gehien kaltetu zituen Euroguneko herrialdeetako bat izan zen berriro. Nazio eskariak ekonomiaren bilakaera oztopatu zuen eta ia lau puntu kendu zizkion hazkunderari. Nazio eskariaren osagai guztiek, salbuespenik gabe, narriadura bizia ezagutu zuten 2012an zehar. BEZaren igoerak, lan merkatuaren egoera txarrak, administrazioen gastuaren joera murriztaileak, nazioarteko atzeraldiak eta kredituak emateko zorrotasunak ekonomia eragileen igurikimenak okertzen lagundu zuten. Kanpo eskariak, ordea, bilakaera positiboa izan zuen, esportazioen hazkunde apalari eta inportazioen beherakadari esker. Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek 2011koak baino hazkunde tasa okerragoak jaso zituzten, salbuespen bakarrak finantza jarduerak eta aseguruak izan zirelarik.

Lanpostuak galtzeko erritmoa areagotu zen 2012an zehar. Zehazkiago adierazita, enplegua %4,4 jaitsi zen urte osoko batez bestean. Tasa horrek esan nahi du lanaldi osoko 768.650 lanpostu galdu zirela urte horretan. Informazioarekin eta komunikazioarekin lotura duten zerbitzueta adarrak eta higiezinaren jarduerak bakarrik sortu zuten enplegua 2012an. Gainontzeko jarduera adar guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, lanpostuak galdu zituzten. Esate baterako, eraikuntza alorreko lanpostuen kopuruak %18,6ko beherakada jaso zuen.

Prezioen bilakaerari dagokionez, kontsumoko prezioen indizeak moteltzeko joera erakutsi zuen 2011. urtean jasotako balioen aldean eta urteko batez bestean %2,4an kokatu zen. Erritmoa apaltzeko joera hori etenda geratu zen iazko azken hilekoetan, indize orokorrak %3ko langa gaintitu zuenean. Gorakada horren arrazoia gobernuak diru bilketa areagotzeko eta defizit publikoa gutxitzeko ezarri zituen neurri batzuk indarrean sartu izana da, hala nola botiken koordainketa eta irailetik aurrera BEZ zergaren tipo berriak erabili izana. Neurri horien eragina iragankorra izango da eta ezarri zirenetik hamabi hilekora bakarrik nabaritu da. Harez geroztik, indize orokorra balio txikiagoetan kokatuko da. Hain zuzen ere, zergen aldaketa kontuan hartu gabe, KPI indizeak %1etik beherako balioak jaso zituen iazko azken hilabeteetan.

Aipatu diren neurri horiek hartu baziren ere, defizit publikoa garrantzitsua izan zen. Hain zuzen ere, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak BPGaren %7,0an kalkulatu zuen 2012an, ezarria zegoen %6,3ko helburutik urrun. Administrazio publikoen sarreraren eta gastuen arteko aldea 73.298 milioi eurokoa izan zen.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009(B)	2010(B)	2011(A)	2012(A)
Azken kontsumoko gastua	4,0	1,0	-1,9	0,9	-0,8	-2,5
-Familien gastua kontsumoan	3,5	-0,6	-3,9	0,6	-0,8	-2,2
-Administrazioaren gastua kontsumoan	5,6	5,9	3,7	1,5	-0,5	-3,7
Kapital eraketa gordina	4,5	-4,7	-18,0	-6,2	-5,3	-9,1
Esportazioak	6,7	-1,0	-10,0	11,3	7,6	3,1
Inportazioak	8,0	-5,2	-17,2	9,2	-0,9	-5,0
BPG	3,5	0,9	-3,7	-0,3	0,4	-1,4
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	7,0	-2,7	-3,2	2,0	8,2	2,2
Erauzketa industriak eta manufaktura industriak	0,5	-2,1	-12,1	4,3	2,9	-3,9
Eraikuntza	1,8	-0,2	-7,8	-14,3	-5,9	-8,1
Txikizkako eta handizkako merkataritza	4,3	0,4	-1,9	1,6	1,1	-1,2
Informazioa eta komunikabideak	3,4	1,5	0,9	6,5	3,9	1,1
Finantza eta aseguru jarduerak	11,9	2,8	-4,0	-3,7	-3,6	0,1
Higiezin jarduerak	2,8	2,1	0,0	-0,9	2,7	1,8
Jarduera prof., zientifikoak eta teknikoak	8,0	2,3	-2,6	-0,2	3,2	-0,7
Administrazio Publikoak defentsa, hezkuntza	4,5	5,1	2,3	2,4	1,1	-0,5
Jarduera artistikoak eta olgetak	2,2	2,0	0,3	0,3	1,4	-0,7
Produktuen gaineko zerga garbiak	1,0	-0,3	-5,4	0,1	-5,5	-0,3
Gogoratzekoak:						
-Kontsumo prezioen indizea	2,8	4,1	-0,3	1,8	3,2	2,4
-Enplegua	3,0	-0,2	-6,3	-2,5	-1,7	-4,4
-Administrazio publikoen defizita (BPG %a)	1,9	-4,5	-11,2	-9,7	-9,4	-7,0

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.

Iturria: INE eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA

Ekoizpen arloak

Sarrera

2012an, EAEko barne produktu gordina %1,2 jaitsi zen eta urtean zehar etengabeko narriadurako joera erakutsi zuen, urte arteko aldakuntza tasak gero eta negatiboagoak zirela. EAEko ekonomia berriro murgildu zen atzeraldi batean, bi urtez hazkunde txikiak lortu ondoren. Horrek agerian uzten du ekonomiaren ahultasuna eta susperraldi sendo eta dinamiko bat lortzeko dauden arazo larriak. Termino nominaletan adierazita, BPGaren tasa %-0,1 izan zen aurreko urtearekiko.

Eskaintzaren ikuspegitik, eta salbuespen bakarra lehen arloa izan zela, jarduera adar guztiek behera egin zuten 2012an eta batez besteko bilakaerak okertzeko norabide batean kokatu zen hilabeteak aurrera zihoazen ahala. Barneko testuinguru makalak eta kanpoko geldotasunak EAEko industria baldintzatu zuten, sektore horren jarduera maila nabarmen gutxituz. Eraikuntzari dagokionez, eskaintzaren eta eskariaren arteko doikuntza berriro izan zen tasa negatibo altuak baldintzatu dituen faktore nagusia, azken bost urtean bezala. Beste aldetik, zerbitzuen adarrak ere behera egin zuten 2012. urtean, eta oro har sektore osoak narriadura zantzuak erakutsi bazituen ere, beherakada esanguratsuena merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen azpiatalak pairatu zuten.

EKONOMIA ARLOEN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea		Enplegua		Ekoizkortasuna	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012
Lehen arloa	-1,9	5,9	-3,5	-0,1	1,7	6,0
Industria	2,0	-2,4	-2,2	-4,3	4,3	2,0
Eraikuntza	-5,9	-6,3	-8,5	-11,8	2,8	6,2
Zerbitzuak	0,8	-0,3	0,6	-0,8	0,2	0,5
Guztira	0,5	-1,2	-0,9	-2,5	1,3	1,4

Iturria: Eustat.

Lehen arloa

Lehen arloa %5,9 hazi zen 2012. urtean termino errealetan eta, horren ondorioz, urte horretan balio erantsi gordinaren hazkunde orokorrari ekarpen positibo bat egin zion jarduera arlo bakarria izan zen. Halaber, sektoreak aurrerakada esanguratsua izan zuen aurreko urteko emaitzaren aldean, orduan %1,9 egin zuelako behera. Uneko prezioetan, 2012ko hazkundea %12,8ra iritsi zen, prezioak nabarmen igo zirela iradokiz.

Nekazaritzaren azpiatalean, azken ekoizpenak hazkunde bizia aurkeztu zuen koltza, sagardotarako sagardoa eta txolina bezalako ekoizkintan. Aitzitik, lekak eta patata bezalako beste elikagai batzuek nabarmen gutxitu zuten ekoizpena. Prezioei dagokienez, 2012an oso gora joan ziren, bereziki uztarako patatarena, zerealenak eta Errioxako ardoarena. Zerealen garestitzearen atzean, azaleratzen ari diren ekonomien hazkunde dago (Txina, India eta Brasil), produktu horien eskaria areagotu zutelako. Inbertitzaileek lehengai horietan oinarritutako finantza produktuak nahiago izanak ere gorantz bultzatu zituen zerealen salneurriak.

Abeltzaintzaren ekoizpenak, oro har, behera egin zuen 2012. urtean zehar. Urterik urte abereen errolda gutxitzen ari da. Hala eta guztiz ere, ekoizpenaren beherakada hori konpentsatuta geratu zen prezioen igoera biziari esker. Igoera abeltzaintzaren atal guztietan gauzatu zen, baina bereziki arrautzetan.

LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

Urteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea			BEG uneko prezioetan		
	2010	2011	2012	2010	2011	2012
Nekazaritza eta arrantza	20,8	-1,9	5,9	15,0	-1,1	12,8

Iturria: Eustat.

Basogintzan, 2011n mozketak urritu eta gero, 2012an areagotu egin ziren, bai pinuan bai eukaliptoan. Prezioek, berriz, historikoki apalak diren mailetan jarraitu zuten eta 2012an

2012ko urteko txostena

berriro egin zuten behera. Salneurriak igotzeko inolako itxaropenik ez zegoenez, jabeek egurra moztea erabaki zuten. Egur hori kanpo merkatuetara esportatu zen, barne eskaria oso ahul zegoelako.

Industria

EAEko industriaren balio erantsi gordinak %2,4ko beherakada izan zuen 2012. urtean eta industria jarduerak aldakuntza negatibo bat jaso zuen bi urteko susperraldiaren ondoren. Atzeraldian berriro sartu izana ekonomiaren barne ahultasunaren eta EAEko industria ekoizkinak erosten dituzten herrialdeen geldotasun orokorraren ondorioa da. Halaber, hiruhilekoz hiruhileko, narriadura sakona eta etengabea marraztu zen.

2012an EAEko industriak izan zuen beheranzko bilakaera ekonomia aurreratuetako industrian ere gertatu zen. Hala eta guztiz ere, jaitsieraren bizitasuna ezberdina izan zen herrialde batzuetan eta besteetan. Izan ere, AEBetan ekoizpena moteldu zen, baina ez zen aldakuntza negatiborik jaso hazkunderan. Europar Batasuneko herrialdeak, ordea, beste krisialdi batean murgildu ziren eta bai balio erantsiak bai ekoizpenak narriadura garrantzitsuak pairatu zituzten.

INDUSTRIAREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak


	Industriaren balio erantsia						
	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
EB-27	4,0	3,5	-1,9	-12,1	8,4	3,1	-1,7
Eurogunea	4,3	3,8	-2,3	-13,2	9,1	3,3	-1,6
Alemania	6,8	5,0	-1,9	-17,7	15,8	6,2	-0,7
Frantzia	1,1	2,0	-4,3	-7,5	3,3	0,5	---
Erresuma Batua	0,1	0,5	-2,8	-9,1	2,1	-0,7	-2,0
Italia	3,9	2,8	-3,0	-15,1	6,0	1,2	-3,5
Espainia	1,7	0,5	-2,1	-12,1	4,3	2,7	-2,9
EAE	4,0	3,1	-0,7	-12,9	2,0	2,0	-2,4
AEB (*)	2,2	2,5	-3,5	-11,4	5,4	4,1	3,9
Japonia (*)	4,2	2,9	-3,4	-21,8	16,6	-2,3	-1,0

(*)Industriaren ekoizpena.


Iturria: Eurostat eta Eustat (EAE).

Industria ekoizpenaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna




Alemania




Frantzia



Espainia



EAE



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eurostaten eta Eustaten datuetan oinarrituta.

2012ko urteko txostena

Industria jardueraren adarrari buruzko adierazleek balio erantsi gordinaren uzkuertzeko joera bera pairatu zuten. 2009ko beherakada larria berdindu ez bazuen ere, EAEko industria produkzioaren indizeak aldakuntza tasa negatibo garrantzitsua izan zuen 2012. urtean. Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera egiten den sailkapena aztertzen denean, ekoizpenaren jaitsiera orokorra izan zela hautematen da. Salbuespenik gabeko gutxitze hori IPIa osatzen duten industria adarren bilakaera aztertzean ere ikusten da. Bereziki sakonak izan ziren informatika eta elektronika alorreko ekoizkinen, kautxua eta plastikoaren, metalurgiaren eta garraio materialaren jaitsierak. Talde horiek EAEko industriaren balio erantsi gordinaren ia erdia biltzen dute eta 2012an izan zuten narriadura %10,0aren inguruan kokatu zen ekoizpenaren alorrean. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak enpresarien iritziez egiten duen inkestatik eratorritako datuek ere agerian uzten dute industriaren ahultasuna. Hain zuzen ere, industria giroaren indizeak bere jaitsiera areagotu zuen 2012. urtean zehar, aurreko bi urtean beherakada apaldu eta gero.

EAE-KO INDUSTRIAREN BEG-AREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak.


	2009	2010	2011	2012
BEG bolumeneko indizea	-12,9	2,0	2,0	-2,4
BEG uneko prezioetan	-19,0	4,5	4,9	-0,7
Deflatorea	-7,0	2,5	2,8	-3,0
Enplegua	-10,4	-3,4	-2,2	-4,3
Produktibitatea	-2,8	5,6	4,3	2,0
Industria produkzioaren indizea	-21,2	1,7	1,9	-7,6
Industria giroaren indizea	-42,0	-20,3	-12,3	-23,0
Ekoizteko ahalmenaren erabilera	66,9	69,8	75,1	74,2

Iturria: Eustat.


Enplegu galera oso garrantzitsua izan zen EAEko industrian eta %4,3an kalkulatu da 2012. urtean. Horren ondorioz, dagoeneko 50.000 lanpostu galdu dira sektore horretan 2007tik, hots, inoiz izan duen langile kopururik gorenetik. Beste aldetik, enpleguaren galerak eta balio erantsi gordinaren bilakaerak %2,0ko produktibitate irabazia ekarri zuten. Balio hori aurreko bi urteetako baino askoz txikiagoa da.

EAEko industria ekoizpenaren ziklo bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera
Urte arteko aldakuntza tasak


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Eraikuntza

Eraikuntzak berriro gutxitu zuen bere ekoizpen jarduera eta %-6,3an utzi zuen bere balio erantsi gordinaren hazkunde tasa 2012. urtean. Hori dela eta, dagoeneko bost urte daramatza aldakuntza tasa negatiboak etengabe biltzen. Sektorean gauzatzen ari den doikuntza ez da

2012ko urteko txostena

oraindik osatu eta 2012 trantsizioko urtea izan zen eskariaren eta eskaintzaren artean beharrezkoa den oreka lortzeko. Eraikuntzaren narriadura orokorra izan zen sektorea osatzen duten atal guztietan eta eragin handia izan zuen bai etxegintzaren eremuan bai obra zibilarenean.

ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012
BEG bolumen indizea	-7,4	-7,9	-5,9	-6,3
BEG uneko prezioak	-10,2	-6,2	-5,4	-5,0
Deflatoarea	-3,0	1,8	0,5	1,4
Enplegua	-7,9	-7,0	-8,5	-11,8
Produktibitatea	0,5	-1,0	2,8	6,2
Etxebizitzaren salerosketak	-19,4	25,4	-20,0	-21,1
Prezioa €/m ²	-10,3	-1,6	-7,7	-15,1
Hasitako etxebizitzak	-41,6	-1,5	32,6	---
Amaitutako etxebizitzak	-4,8	-15,7	-0,4	-25,0
Bisatuak. Etxebizitzaren kopurua	-24,6	-1,4	-8,3	-33,8
Zementuaren itxurazko kontsumoa	-22,7	-14,0	-11,3	-25,7

Iturria: Eustat, INE, Oficemen eta Sustapen Ministerioa.

Eskaintza eskarira egokitu ahal izateko, ezinbestekoa da lan merkatuaren baldintzak hobetzea. Izan ere, etxebizitzaren salneurriak izan duen merkatze garrantzitsua ez du inolako islarik izan eginiko salerosketen kopuruan. Aitzitik, bi aldagai horien artean alderantzizko erlazio bat egon beharrean, zuzeneko erlazioa gertatu da. Lan merkatuaren egoera txarrak eta errenta gordinaren osagaia den soldata gutxitu izanak uzkurdua handia eragin dute higiezinaren eskarian. Halaber, aurrekontuetan ezarri diren murrizketak oztopoa izan ziren berriro higiezinaren salerosketak finantzatzeko. Beste aldetik, obra zibilean, aldakuntza tasa negatiboaren azpian dagoen arrazoi nagusia politika publikoen aurrekontuetan eginiko murrizketak dira.

Eraikuntza jardueraren egoera dramatikoena sektoreko lan merkatuari dagozkion zenbatekoetan aurkitu zen. Balio erantsi gordinaren terminoetan urte txarrena 2010 izan bazen

ere, enpleguari dagokionez datu negatiboenak 2012an jaso ziren. Hain zuzen ere, hala Gizarte Segurantzak afiliazioaz ezagutarazi dituen datuek nola kontu ekonomikoetan argitaratu direnek 2012an jaso zituzten aldakuntza tasa okerrenak, hurrenez hurren, %-12,0ko eta %-11,8ko balioak bilduta. Ekonomia atzeraldian dagoen urte hauetan, 2012 izan zen eraikuntzak enplegu gehien galdu zuen urtea, guztira 8.900 lanpostu galdu baitziren urte horretan. Krisia hasi zenetik igaro diren bost urteko epean, berriz, 34.000 lanpostu inguru desagertu dira sektore horretan.

Zerbitzuak

2012an, zerbitzuen batez besteko hazkunde tasa %-0,3an kokatu zen, hots, aurreko urtean jaso zen balioa baino puntu bat inguru beherago. Sektorearen balio erantsiak izan zuen jaitsieraren arrazoa merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen azpiatalak ezagutu zuen narriadura garrantzitsua (%-1,1) da. Beste aldetik, hala administrazio publikoak, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak batzen dituen adarrak nola gainontzeko zerbitzuek biltzen dituenak gehikuntza txikia edo hutsala izan zuten.

ZERBITZUEN ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012
BEG bolumenen indize kateatua	0,0	0,7	0,8	-0,3
BEG uneko prezioak	2,3	1,2	2,5	1,0
Deflatoarea	2,3	0,5	1,7	1,3
Enplegua	-1,0	0,2	0,6	-0,8
Produktibitatea	1,0	0,5	0,2	0,5
Barne merkataritzaren indizea	-3,7	-0,5	-3,7	-5,4
Bidaiarien gaudiak	-1,3	12,6	5,3	0,0
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,88	1,88	1,89	1,91
Plazen betetze maila (ehunekoak)	41,66	43,97	46,40	46,35
Zerbitzuen koiantura indizea	---	---	-3,8	-6,3

Iturria: Eustat.

2012ko urteko txostena

Merkataritzaren adarrak azken urteetako beheranzko joerari jarraipena eman zion. Hala ere, 2012an EAEko merkataritzaren egoerak okerrera egin zuen. Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura indizearen arabera, merkataritzako azpiatal guztiek bat egin zuten jaitsierako joera horrekin eta narriadura bizia orokorra izan zen, hala txikizkako merkataritzan nola handizkakoan. Jarduera adar horren egoera txarra lan merkatuaren adierazleetan ere islatuta geratu zen. Izan ere, bai txikizkako merkataritzaren indizearen datuek bai Gizarte Segurantzako afiliazioarenek EAEko merkataritzan, 2012. urtean zehar, lanpostu asko galdu zirela erakutsi zuten.

Turismoari dagokionez, jarduera horretarako eskura dauden adierazleek atzera pausu bat erakutsi zuten 2012an zehar. Izan ere, Eustatek egiten duen establezimendu turistiko hartzaileen inkestak beherakada garrantzitsua estimatu zuen EAEko hoteletan igarotako gaudien kopuruan eta bidaiarien sarreran. Orobat, plazen betetze maila ere murriztu zen. Aurreko urtekoa baino emaitza hobea erakutsi zuen aldagai bakarra turisten batez besteko egonaldia izan zen, 1,91 egunera luzatu baitzen. Hala ere, EAEko hotel azpiegiturek bai kantitatea bai kalitatea handitzeko prozesu batean murgilduta jarraitzen dute. Hori dela eta, 2012. urtean establezimenduen kopurua zertxobait hazi zen eta EAE osoan hoteletan eskaintzen diren plazen kopurua handiagoa zen. Bidaiarien sarrera gutxitzeko arrazoia Estatuko gainontzeko erkidegoetatik iritsitako turisten jaitsiera da, batez ere EAetik hurbilen dauden erkidegoetakoak. Beste aldetik, turista atzerritarrek, bereziki Europako iparretik eta erdialdetik etorri zirenek, turismorako helburutzat EAE hartu zuten eta bisiten kopurua nabarmen areagotu zen 2012. urtean zehar. Azpimarragarria izan zen berriro iparramerikar eta japoniar turisten etengabeko hazkundera, European zehar egingo dituzten turismo zirkuituetan EAE kontuan hartzen dutelako.

ZERBITZUEN BEG-AREN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012
Zerbitzuak guztira	0,0	0,7	0,8	-0,3
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-2,8	0,4	0,0	-1,1
AAPP, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbi.	3,4	3,8	3,9	0,0
Gainontzeko zerbitzuak	0,0	-0,8	-0,4	0,1

Iturria: Eustat.


Analisia garraioaren sektorean fokatuta, bai zerbitzuen koiuntura indizearen datuek bai garraio eta biltegiatzeari buruzko enpleguaren zenbatekoek ahultzeko joera eta jardueraren murrizketa erakutsi zituzten 2012. urtean. Hegazkinez eginiko trafikoaren datuek, berriz, 2011koaren antzeko portaera islatu zuten, baina urtean zehar ezberdintasun handiak hauteman ziren. Izan ere, erdialdeko bi hiruhilekoak bikainak izan ziren EAEko aireportuetara iritsi ziren bidaiariaren kopuruari dagokionez. Hala ere, iazko azken hiru hilekoetan, %1,0tik zertxobait gorago dagoen beherakada bat jaso zen 2011ko epealdi beraren aldean. Salgaien trafikoari dagokionez, jatorria edo helburua EAEko aireportu bat duten salgaien bolumena %1,0 gutxitu zen 2012. urtean zehar.

Eskaria

Sarrera

2012an, barne eskariak beherakada esanguratsua pairatu zuen eta EAEko barne produktu gordinaren hazkundeari eginiko ekarpen negatiboa aurreko urtekoa baino handiagoa izan zen. Aitzitik, kanpo arloak ekarpen positiboa egin zion ekonomiaren bilakaerari eta, puntu oso bateko ekarpenari esker, ekonomiaren narriadura orokorra galgatzea lortu zuen. Urteko batez bestean, osagai nagusi guztiek behera egin zuten.


Barne eskariaren osagaien hazkundera



Iturria: Eustat.

2012ko urteko txostena

Eskarien ekarpenak BPGari



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabiltuta.

Gastua azken kontsumoan

Azken kontsumoan eginiko gastuak %1,2ko jaitsiera izan zuen 2012an. Beherakada hori orokorra izan zen eta bai gastu pribatua nola, bereziki, administrazio publikoen kontsumoan nabaritu zen. Erakunde publikoei, beren kontuen defizita murrizteko helburua betetzeko, eskatu zitzaizkien ahaleginek %2,1aren inguruko murrizketa utzi zuten kontsumo publikoan, agregatu horren serie historiko osoan dagoen lehen datu negatiboa baita, ahultasuneko egoeretan ekonomia suspertzeko arduraduna izan baitzen. Kontsumo publikoaren jaitsiera bai funtzionamendurako gastuan bai langileen ordainketan gauzatu zen, azken hauek aparteko ordainketa bat ez baitzuten kobratu.

Familien azken kontsumoari dagokionez, osagai horren narriadura %-1,0ra iritsi zen 2012ko batez bestean. Urte horren barnean, gorabehera handiak gertatu ziren agregatuaren bilakaeran, irailean indarrean sartu zen BEZaren igoerak erosketa batzuk aurreratzea eragin zuelako, hirugarren hiruhilabeteko emaitza hobetuz, baina laugarrenekoaren kaltetan. Familien kontsumoan, urte osoan zehar, eragin negatiboa izan zuten beste faktore batzuk langabeziaren hazkundea, langileen egoera prekario eta zalantzarikoa, eta finantzazioa lortzeko dauden baldintza zorrotzak dira.

ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011	2012
Soldatapekoen ordainketa	5,8	-1,4	1,9	0,0	---
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	4,8	2,6	1,9	3,4	2,4
Enplegua	0,2	-4,0	-1,3	-0,9	-2,5
Pentsioen kopurua (*)	1,6	1,7	1,5	1,4	1,3
Batez besteko pentsioa (*)	6,6	4,5	2,9	3,1	2,9
PFEZren diru bilketa	4,5	-12,1	3,8	6,3	0,2
Banku arteko interes tasa (urte baterako euriborra)(**)	4,8	1,6	1,4	2,0	1,1
KPI	4,1	0,3	1,7	3,1	2,3

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak.

(**) Hilabeteko batez besteekin osaturako urteko batez besteak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioaren, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

Familien kontsumoaren bilakaera aztertzeko orduan eskura dauden adierazleek 2012an pairatu zuen narriadura baieztatzen dute. Espainiako Bankuak banku sistemak arlo pribatuari emandako kredituez argitaratu dituen datuek %6,0aren inguruko beherakada bizia erakusten dute urte osoko batez bestean. Merkataritzako adierazleen ikuspegitik, 2012an jaitsiera nabarmena jasotzeaz gain, emaitza negatiboak pilatu ditu 2008. urtetik. Ibilgailuen matrikulazioak, berriz, krisia hasi zenetik ezagutu duen beheranzko joeran sartuta jarraitu zuen.

EGINDAKO KONTSUMOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011	2012
Kontsumo pribatua (bolumeneko indizea)	0,6	-3,6	0,8	0,3	-1,0
Kontsumo publikoa (bolumeneko indizea)	7,0	5,0	2,2	-0,1	-2,1
IPI kontsumo ondasunak. EAE	-7,5	-14,3	0,6	-1,7	-5,4
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	-4,6	-8,8	0,9	-1,4	-4,7
Automobilen matrikulazioa	-22,6	1,7	-8,8	-27,0	-14,4
Barne merkataritzaren indizea (prezio finkoak)	-2,8	-3,7	-0,5	-3,7	-5,4
Txikizkako merkataritza (prezio finkoak)	-5,0	-0,2	-0,5	-5,4	-3,5

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

2012ko urteko txostena

Kapital eraketa gordina

Inbertsioak %5,4ko murrizketa ezagutu zuen 2012. urtean. Kapital eraketa gordinaren barruan, jaitsiera orokorra hauteman zen, hala ekipamendurako ondasunen atalean (%-4,0) nola gainontzeko inbertsioa biltzen duen azpiatalean (%-6,0). Aldakuntza tasa horiek guztiek okertzeko joera erakutsi zuten 2011ko emaitzen aldean, eta okertze hori bereziki larria izan zen ekipamendurako ondasunen adarrean.

Inbertsioak barne eskariaren hazkunderari egin zion ekarpen negatiboa hainbat adierazletan geratu zen agerian. Izan ere, industria produkzioaren indizearen bilakaera ekipamendurako ondasunen atalean, nabarmen gutxitu zen 2012an, aurreko urtean hobekuntza garrantzitsua lortu ondoren. Ondasun mota horren inportazioak nabarmen murriztu ziren eta hazkunde tasa negatiboa jaso zuten, lehenengoa 2009ko atzeralditik. Beste aldetik, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak %18,6 hondoratu ziren, enpresen inbertsiorik eza agerian utziz.

KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011	2012
Kapital eraketa gordina (bolumenaren indize kateatua)	-1,8	-14,3	-4,3	-1,8	-5,4
- Ekipamendurako ondasunak	-1,0	-23,2	-2,6	7,1	-4,0
- Gainontzeko inbertsioa	-2,1	-11,5	-4,9	-5,4	-6,0
IPI ekipamendurako ondasunak:	-2,5	-21,0	-4,3	5,8	-7,9
- IPI garraio materiala	2,4	-10,4	4,2	11,2	-9,3
- IPI makineria	-2,2	-29,9	-5,3	13,3	-3,0
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	-2,2	-34,8	13,1	1,6	-2,7
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-41,2	-39,6	0,8	-19,8	-18,6

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako enpresek industria giroaz 2012an zuten igurikimeneke saldo negatiboak utzi zituzten. Izan ere, enpresen konfiantzak ez zuen saldo positiborik sektore bakar batean ere. Ezkortasuna eraikuntza alorreko enpresetan eta tamaina txikiko enpresetan fokatu zen bereziki. Barne merkatuaren eta Europakoaren egoera ahula dago enpresen

igurikimen okerrago horien atzean. Igurikimen positiborik ezak eragin kaltegarria izan zuen EAEko enpresen inbertsioan.

Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

2011. urtean hasi zen nazioarteko merkataritzaren moteltzeak jarraipena izan zuen 2012an ere, munduko ekonomiak hazkunde erritmoa galgatu zuen heinean. Izan ere, Munduko Merkataritza Antolamenduaren (MMA) arabera, herrialdeen arteko merkataritza salerosketak ia ez ziren ezer aldatu (%-0,1) urteko batez bestean, geldotasuneko irudia eskainiz. Hala ere, termino errealean, saldutako bolumena %2,2 hazi zen, prezioetan jaitsiera garrantzitsua egon zela agerian utziz.

Urte osoko saldo neutroak emaitza ezberdinak ezkututzen ditu ekonomia eremu bakoitzaren arabera. Hain zuzen ere, Txinak eta AEBek kanpoko salmentak areagotu zituzten, baina Europar Batasunak eta Japoniak beherakadak jaso zituzten salmenten balioan. Gogoratu behar da estatistika hori dolarretan kalkulatzeko dela eta bai euroak bai yenak balioa galdu zutela dolarraren aldean 2012. urtean. Hala ere, herrialde horiek esportatu zuten bolumena ere murriztu zen (%-0,3 eta %-1,2, hurrenez hurren).


Txinak ezin izan zuen munduko ekonomian ezarri zen ahultasuneko tonua saihestu eta bertako esportazioak %7,9 hazi ziren. Tasa hori garrantzitsua da, baina moteltzeko joera erakusten du aurreko urtean lortutako %20,3aren aldean. Hala ere, merkatu kuota irabazi du berriro nazioarteko merkataritzan eta Europar Batasunak bere lurraldetik kanpo saldu zuen kopurura (2,2 bilioi euro) hurbiltzen ari da. AEBek, berriz, %4,5 areagotu zituzten salmentak. Tasa hori aurreko emaitzak baino apalagoa da, baina azpimarratzekoa da ahultasuneko testuinguru batean lortu delako.

Europar Batasunak %4,6 gutxitu zuen ondasunen esportazioen balioa dolarretan. Dena dela, oso bestelako emaitza lortzen da Europar Batasunaren barruko edo kanpoko salmentak aztertzen direnean. Izan ere, europar herrialdeen artean hedatu zen atzeraldiak kontinenteko salmentak %7,1 gutxitzea ekarri zuen, munduko gainontzeko tokietara esportatutakoa %-0,1 bakarrik jaitsi zen bitartean. Europako diruak dolarraren aldean balioa galdu zuen arren, europar enpresak ez ziren gai izan barruko salmenten eskasia herrialde dinamikoetan lortutako esportazio handiagoekin konpentsatzeko. Batasuneko herrialde nagusi guztiek salmentak gutxitu zituzten, beraien artean alde txikiak daudelarik. Esate baterako, Alemaniak eta Frantziak

2012ko urteko txostena

%-4,5eko tasa jaso zuten, Espainiak %-4,6 eta Italiak %-4,4 izan zituzten bitartean. Erresuma Batuak, berriz, %6,6 gutxitu zituen esportazioak.

Ondasunen esportazioak dolarretan Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

EAEko ekonomia ez zen salbuespen bat izan eta atzerrian (Estatuko gainontzeko erkidegoetan eta atzerrian) saldutako ondasunak eta zerbitzuak %4,5 murriztu ziren, Eustatek osatzen dituen kontu ekonomikoen arabera. Salmenten beherakada hori zertxobait handiagoa (%-5,7) izan zen erosketen jaitsiera batekin konpentsatu zen eta kanpo arloak 1,1 puntu ekarri zizkion barne

produktu gordinaren hazkunderari, aurreko balioak gaindituz. EAEko kanpo merkataritzak erakutsi zuen bizitasun falta Europako ekonomien ahultasunari lotuta dago, eta hiruhilekako daturik txarrenak, hain zuzen ere, iazko bigarren seihilekoan jaso ziren. Izan ere, urteko lehen erdian esportazioek 2011ko balioa berdindu zuten bitartean, bigarren seihilekoan jaitsierak %8 gainditu zuen.

Atzerriarekin eginiko ondasunen salerosketen analisiak iradokitzen du zailtasun handienak Espainiako merkaturan aurkitu zituztela, zeren eta atzerrian saldutako ondasunen balioa %0,9 bakarrik gutxitu baitzen 2012an eta 20.300 milioi euroak (behin-behineko datuak dira) gainditu zituzten. Datu hori inportazioen bilakaerarik alden du, azken horiek %10,4 murriztu zirelako epealdi berean, 15.500 milioi euro zenbatu arte. EAEko barne eskariak bizi dituen zailtasunak, hala azken kontsumoan nola kapital eraketa gordinetan, erosteko behar txikiago horren azpian dago. Aurrekoaren ondorioz, atzerriarekiko merkataritza saldoa ia 4.800 milioi eurora iritsi zen, aurreko balioen oso gainetik dagoen diru kopuru bat delarik. Halaber, energiako ekoizkinak kontuan hartzen ez badira, lortutako saldoa 8.200 milioi euroen ingurura hurbiltzen da, hots, BPGaren %12,2ra.

ONDASUNEN MERKATARITZA ATZERRIAREKIN

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2007	2008	2009	2010	2011	2012(*)	Milioi € 2012 (*)
Esportazioak							
Guztira	14,6	6,3	-26,3	19,6	14,6	-0,9	20.302,6
Ez-energetikoak	14,7	4,9	-25,9	19,3	14,4	-2,1	18.263,3
Energetikoak	12,5	22,6	-30,5	22,7	17,3	10,8	2.039,3
Inportazioak							
Guztira	8,2	6,4	-38,9	25,5	12,2	-10,4	15.508,3
Ez-energetikoak	14,1	-0,8	-38,2	26,0	11,3	-10,5	10.084,3
Energetikoak	-3,2	22,9	-40,1	24,6	13,8	-10,2	5.424,0
Saldoa							
Guztira (milioi €)	170,1	161,4	2.650,9	2.445,0	3.178,5	4.794,3	4.794,3
Ez-energetikoak (milioi €)	4.452,4	5.429,1	5.628,9	6.180,1	7.376,8	8.179,0	8.179,0

(*) Behin-behineko datuak.


Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

2012ko urteko txostena


EAEko esportazioen osakerak ia ez zuen aldaketarik izan 2012. urtean eta oraindik ekipamendurako ondasunen salmenta dago buruan, guztizkoaren %42,3 biltzen duelako, makinak eta tresnek (%20,9) eta garraio materialak (%21,4) antzeko pisua dutela. Metal arruntak eta beren manufakturak ondoren kokatu ziren, salmenten %25 bereganatuta. Inportazioei dagokienez, guztizkoaren herena baino gehiago produktu mineral eta energetikoak izan ziren, ondoren metal arruntak eta beren manufakturak (%21,2) eta ekipamendurako ondasunak (%19,2) daudelarik. Azken talde horretan, gehiengoa makinak eta tresnak dira (%15,1).

Ondasunen esportazioak eta inportazioak ekoizkin motaren arabera Ehunekoa

Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat. 2012ko datuak. Behin-behinekoak.

Esportazioen helburuaren arabera, jaitsiera herrialde garatuetara bidalitako salmentetan gauzatu zen, garatzen ari diren ekonomiek EAEn gehiago erosi zuten bitartean. Zehazkiago adierazita, ELGE erakundeko herrialdeetan saldutakoaren balioa %2,0 jaitsi zen 2012an, baina Europako herrialdeak izan ziren beherakada horren erantzuleak. Izan ere, Europar Batasunera esportatutakoa %5,2 jaitsi zen, gainontzeko herrialde garatuetara bidalitakoa %12,8 hazi zen bitartean. Deigarria da Mexikon (%68,8), Txilen (%81,5) eta Japonian (%45,0) saldutakoak lortu duen gehikuntza sendoa, lehen bi kasuetan trenbideko ibilgailuei esker, eta hirugarrenean bereziki makineriari esker. Paradoxikoki, gaur egun bizitasun handiena erakusten duten herrialde batzuek, hala nola Txinak eta Errusiak, EAEko ekoizkinen erosketa gutxitu zuten, lehen kasuan %11,3 eta bigarrenean %8,8.

Berriro ere, Frantzia izan zen EAEko produktuen helburu behinena eta atzerrian saldutako guztiaren %17,1 bereganatu zuen. Halaber, 2011ko maila bertsuan geratu zen, aldakuntza tasa %0,1 bakarrik izan zelako. Aitzitik, Alemaniak, bigarren helburu behinena baita, %4,8 gutxitu zituen EAEn eginiko erosketak. Bi herrialde horietatik urrun, bai AEBek (%0,9) bai Erresuma Batuak (%7,6) EAEko ekoizkinen erosketak areagotu zuten.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA ETA JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi € 2012 (*)
	2007	2008	2009	2010	2011	2012(*)	
Esportazioak							
ELGE	9,7	4,9	-30,7	21,1	17,6	-2,0	15.512,9
Europako kide berriak	29,9	7,5	-30,9	26,4	16,9	-2,6	994,1
Europar Batasuna 27	11,2	4,5	-33,0	22,3	18,2	-5,2	12.444,5
Alemania	15,6	3,6	-32,4	19,7	23,9	-4,8	2.885,5
Frantzia	7,0	7,3	-29,0	23,5	12,1	0,1	3.469,7
Erresuma Batua	4,8	1,6	-36,1	22,0	24,9	7,6	1.319,4
Italia	-1,5	-3,2	-37,3	31,1	9,6	-21,6	944,8
Errusia	44,0	50,3	-47,1	49,2	26,7	-8,8	191,0
Txina	20,4	33,7	-35,0	55,9	16,1	-11,3	418,6
Inportazioak							
ELGE	14,5	-4,3	-33,7	24,7	8,0	0,6	9.906,6
Europako kide berriak	15,6	29,7	-35,9	9,0	15,7	-18,5	409,2
Europar Batasuna 27	15,1	-4,6	-37,0	23,3	7,7	-8,9	7.425,4
Alemania	34,0	-12,5	-46,6	22,6	19,2	-4,0	1.907,1
Frantzia	8,7	2,9	-36,5	29,4	8,7	-10,7	1.586,5
Erresuma Batua	8,2	-18,7	-41,4	43,5	2,1	-33,1	536,6
Italia	18,7	-8,4	-28,7	2,1	1,6	-3,4	885,9
Errusia	6,6	19,7	-47,0	36,7	15,6	-24,2	2.101,6
Txina	45,9	-2,0	-36,4	24,0	2,7	-7,6	837,9

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Beste aldetik, EAEko ekonomiak 2012an bizi zuen atzeraldiak ondasunen inportazioaren bilakaera baldintzatu zuen, %10,4 gutxitu baitziren. Esportazioekin gertatu zenaz bestela,

2012ko urteko txostena

erosketen gehikuntza herrialde garatuetan (%0,6) gauzatu ziren, ELGETik kanpoko ekonomietan eginiko erosketak oso nabarmen (%-25,0) murriztu ziren bitartean. Atal honetan ere adierazi behar da portaera ezberdina hauteman zela Europako herrialdeen eta gainontzeko ekonomia garatuen artean, zeren eta europar bazkideetan inportatutakoaren balioa %8,9 jaitsi zen bitartean, ELGEkoak diren baina Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetan erositakoa %36,9 areagotu baitzen. Mexiko da gehikuntza bizi horren erantzule nagusia, EAEn eginiko salmentak ia hirukoiztu zituelako, ia guztia erregai mineralak zirelarik. Horren ondorioz, 1.079 milioi euroko inportazioak iritsi ziren herrialde horretatik. Hori baino gehiago Errusiak, Alemaniak eta Frantziak bakarrik saldu zuten.

Hain zuzen ere, EAEko ekonomiaren hornitzaile nagusiak, hots, Errusiak, askoz gutxiago saldu zuen EAE (%-24,2), erregaien erosketa iparramerikar herrialdera desbideratu zelako. Alemaniak eta Frantziak ere ezin izan zuten EAEko enpresei gehiago saldu 2012an eta, hurrenez hurren, %4,0 eta %10,7 jaitsi ziren bertan erositakoak. Bide beretik joan ziren beste bi herrialde europar handiak ere (Erresuma Batua eta Italia), EAEra esportatutakoa balio negatibotan kokatu baitzen.


Lan merkatua

Hamabost urtez jarraian enplegua sortzen egon ondoren, 2009an EAEko lan merkatuak oso beherakada garrantzitsua izan zuen landunen kopuruan, 2012an ere segida izan zuena. Hain zuzen ere, urte horretan EAEko ekonomia berriro sartu zen atzeraldian eta horrek enpleguaren datuak nabarmen okertzea ekarri zuen berarekin. Halaber, ekonomiak ez du hobera egingo, aurreikuspenen arabera, gutxienez 2013ko amaiera arte. Beraz, lan merkatuaren gaineko igurikimenak ezkorrak dira.


Aurreko urteetan ez bezala, 2012an EAEko lan merkatuaren bilakaera aztertzeke orduan erabiltzen diren adierazle nagusiak bat etorri ziren beheranzko joera bat seinaltatzeko orduan, aurreko urteko emaitzak baino okerragoak eskainiz guztietan. Zehazkiago, hala Eustatek osatzen dituen kontu ekonomikoek nola Gizarte Segurantzako afiliazioak %2,5eko jaitsiera aurkeztu zuten urteko batez bestean. Lan merkatuaren inkestek, ordea, galera handiagoa jaso zuten, %-3,5 BJA inkestan eta %-6,0 INEk egiten duen eragiketean. Beraz, estatistika gehienen arabera, 2012an 900.000 landun zeuden euskal autonomia erkidegoan.

**Enpleguaren bilakaera EAEn
Pertsonak**


Kontu ekonomikoak




Gizarte Segurantzako afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.


Eustatek egiten dituen kontu ekonomikoek, BPGaren bilakaerarekin bateragarritasun handiena duen estatistika iturria baita, aurreko bi urtekoa baino nariadura handiagoa seinalatzen zuten. Beraz, azken lau urtean 83.000 lanpostu galdu direla kalkulatu da. Antzeko zenbakiak eman zituzten Gizarte Segurantzako afiliazioak. Erregistro horren analisiak iradokitzen du enpleguaren galerak berdin nabaritu zutela bertoko langileek eta atzerrikoek. Izan ere, atzerriko langileek %2,3 gutxitu zuten afiliatuen kopurua, nahiz eta etxeko langileei buruzko araudi berriak

2012ko urteko txostena


jarduera horretan lan egiten duten pertsonen kopurua nabarmen gorarazi, neurri handi batean emakume atzerritarrak baitira. Horren ondorioz, atzerritar afiliatuen kopuruak ia ez du inolako aldakuntzarik izan azken urteetan eta guztizkoaren %5,7an jarraitzen du.

Atzerritar afiliatuen bilakaera EAEn

Urte arteko aldakuntza tasak



Afiliatu guztiekiko pisua ehunekotan



Iturria: Gizarte Segurantza.

Enpleguaren banaketa sektoreka aztertuta, kontu ekonomikoen informazioak adierazten du berriro eraikuntzak izan zuen galera handiena azken urtean, hala lanpostuen kopuruan (8.982 langile gutxiago zituen, industriarena baino zertxobait handiagoa den galera baita) nola ehunekoan (%-11,8). Beherakada bizi hori etxegintzaren doikuntza garrantzitsuak eragin zuen, obra berritarako bisatuen beheranzko bilakaerak egiaztatzen duenez, baina baita obra zibilaren jaitsierak ere, aurrekontuetako herstura egitasmoek kaltetuta. Beste aldetik, industriak, aurreko bi urtean beheranzko joera leundu ondoren, 2012an jaitsiera areagotu zuen, barne eta kanpo eskarien ahultasunak kaltetuta. Azkenik, zerbitzuek enplegua gutxitu zuten berriro, 2009an bakarrik gertatu zen bezala.

Aipatu den enplegu galerak eta barne produktu gordinaren jaitsierak (%-1,2) lan faktorearen itxurazko produktibitatearen irabazia aurreko urteko maila bertsuan kokatu zuten, baina 2010eko datuaren zertxobait beherako. Aurreko urteetan ez bezala, produktibitatea gehien

areagotu zuen sektorea eraikuntza izan zen. Hala eta guztiz ere, gorakada horren azpian benetan dagoena enpleguaren jaitsiera nabarmena da, eta ez, ordea, ekoizteko prozesuen hobekuntza esanguratsu bat, benetan behar dena horixe izan arren.

ENPLEGUA ETA PRODUKTIBITATE IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Enplegua guztira:	2,9	0,2	-4,0	-1,3	-0,9	-2,5
Produktibitatea guztira:	1,3	1,1	0,1	1,8	1,3	1,4
- Enplegua lehen arloan	-4,3	-0,1	-3,4	-0,8	-3,5	-0,1
- Produktibitatea lehen arloan	4,4	-6,1	-1,4	21,8	1,7	6,0
- Enplegua industrian	1,7	-2,0	-10,4	-3,4	-2,2	-4,3
- Produktibitatea industrian	1,3	1,4	-2,9	5,6	4,3	2,0
- Enplegua eraikuntzan	5,2	-4,8	-7,9	-7,0	-8,5	-11,8
- Produktibitatea eraikuntzan	5,6	-1,1	0,5	-1,0	2,8	6,3
- Enplegua zerbitzuetan	3,2	2,0	-1,0	0,2	0,6	-0,8
- Produktibitatea zerbitzuetan	0,9	1,4	1,0	0,5	0,2	0,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

Adin talde guztiek 2012. urtean landunak galdu bazituzten ere, galera erritmo biziena berriro gauzatu zen biztanleria gazteenen artean (16 urtetik 24ra bitartekoan). Hain zuzen ere, BJA inkestak kalkulatu zuenaren arabera, kolektibo horretan enplegua %25,5 gutxitu zen 2011ko emaitzaren aldean. Sexuaren araberako analisiak ere agerian uzten du EAEko lan merkatuaren krisi sakona, zeren eta, aurreko urtean ez bezala, 2011. urtean lanpostuak galdu ziren bai gizonen artean (%-4,6) bai emakumeen artean (%-2,3) ere. Gizonen emaitza okerragoa izatea lotuta dago beraiek egiten duten lanarekin, krisiak gehien kaltetu dituen bi sektoretan (eraikuntzan eta industrian) pisu handia dutelako. Aurreko guztiaren ondorioz, 16 urtetik 64ra bitarteko enplegu tasak jaitsierari jarraipena ematea eragin zuen, Europak ezarri duen helburutik urrunduz.

Enpleguaren galerak kontratu mugagabea zuten soldatapekoei eragin zien bakarrik, 2012an beren kopurua %4,5 gutxitu baitzen. Aitzitik, aldi baterako kontratua zutenen kopurua %2,2 areagotu zen. Aurrekoaren ondorioz, aldibaterakotasun tasa %21,4an kokatu zen urte osoko


2012ko urteko txostena

batez bestean, 2006. urtetik inoiz jaso den altuena baita. Tasa horrek alde handiz gainditzen du Europar Batasunean, batez beste, dagoena.


Aldibaterakotasun tasa soldatapekoen artean

%

EAE



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Langile bakoitzeko batez besteko lanaldiak, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioak argitaratu duen informazioaren arabera, gora egin zuen berriro, hirugarren urtez jarraian. Joera horrek iradokitzen du azken lan erreformak orduen alorrean sartu zuen malgutasunak ez duela balio izan irazteak gutxitzeko. Aitzitik, langile gutxiago eta lanaldi luzeagoak dira hartutako erabakien ondorioak. Batez besteko lanaldiaren igoera horren zati bat lan egin ez ziren orduen jaitsieraren ondorioa da, bai oporrak gutxitu direlako bai absentismoa murriztu delako. Aparteko orduak ere oso nabarmen jaitsi ziren, enpresek pilatuta dituzten eskariak txikiagoak direlako.

Biztanleria aktiboari dagokionez, aldagai horrek jaitsiera garrantzitsua (%-2,1) izan zuen, krisiaren iraupenak eraginda. Egoera negatibo horrek aukerarik eza ekarri zuen berarekin, bereziki gazteenengan kalte eginez. Aurreko urteetan ez bezala, etsipena EAEko emakumeengan ere hedatu zen, lan merkatua uztea erabaki baitzuten (%-0,8), nahiz eta gizonen proportzioa handiagoa izan zen (%-3,3).

LANALDIAREN BILAKAERA


Urteko ordu kopurua

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Batez besteko lanaldia langile bakoitzeko	1.538,2	1.534,0	1.506,3	1.520,7	1.523,1	1.529,9
Aparteko orduak (mila)	2.938,0	3.138,3	1.999,9	2.336,9	1.626,4	1.291,5
Huts egindako orduak langile bakoitzeko	276,7	277,3	288,3	271,0	273,0	260,6
-Oporrak eta jaiegunak	197,2	203,2	194,8	186,2	193,0	185,9
-Bestelako arrazoiak	79,4	74,0	93,6	84,8	79,9	74,7

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa.

Langabezia, berriz, aurreko urteetan baino ehuneko txikiagoan hazi zen (%9,4), lanpostua 2012an galdu zuten pertsona asko lan merkatua utzi zutelako. Hala eta guztiz ere, langabezia tasak goranzko joerari eutsi zion eta 2000. urtetik izan duen baliorik gorena (%12,1) jaso zuen. Beste aldetik, Europar Batasuneko langabezia tasa %10,5ean kokatu zen. Beraz, EAEko langabezia tasa inguruko mailetatik apur bat gehiago urrundu da, 2008ko bigarren erdia arte enplegu beteko egoera batean egon ondoren.

Langabezia tasaren bilakaera EAEn



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.

Iturria: Eustat eta INE.

2012ko urteko txostena

Hala enplegua erregulatzeko dosierren kopurua nola beraien eragina pairatzen duten pertsonena nabarmen igo ziren 2012. urtean, aurreko urtean ezagutu zuten hobekuntzaren ondoren. Zehazkiago adierazita, dosierren kopurua oraingo krisian jasotako altuena da eta 1993. urtera itzuli beharko zen kopuru handiago bat aurkitzeko. Hala ere, 2012an kaltetutako langileen kopurua 2009koa baino askoz ere txikiagoa izan zen. Dena dela, urte hartako joera nagusia lanaldia etetea bazen, 2012an kontratua amaitzeko dosierren kopuruak pisua irabazi zuen eta aurreko urteetan izan zuen eragina aise gainditu zuen. Orobat, lan jardunaldia murrizteko dosierren kopurua handitu dela hauteman da, krisiaren aurreko urteetan oso gutxi erabiltzen baziren ere.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Dosierren kopurua	282	496	2.565	1.993	1.560	2.636
Eragindako langileak	4.815	12.794	68.722	35.426	22.072	37.429
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	17	108	1.170	1.051	2.203	5.466
- Behin-behineko etetea	3.856	11.216	65.574	32.349	17.991	28.627
- Kontratua amaitzekoa	942	1.470	1.978	2.026	1.878	3.336

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikak Saila.

Azkenik, 2012. urtean zehar sinatu ziren kontratuen kopurua %6,6 gutxitu zen, aurreko urtean izenpetutako guztizkoaren aldean. Jaitsiera horrek aurreko bi urteko joera positiboa bertan behera utzi zuen. Hala ere, garrantzitsua da kontratazioa erabili ziren kontratu moten arabera aztertzea, zeren eta, esate baterako, mugagabeko kontratuen kopurua %13,1 gehitu baitzen, aurreko urteetako datuak hobetuz. Gehikuntza horren zati handi bat lanaldi laburreko kontratu mugagabeen bilakaerari (%25,6) zor zaio.

Aitzitik, aldi baterako kontratuak gutxiago erabili ziren eta guztira %7,3 gutxitu ziren. Beraien artean, oso garrantzitsuak izan ziren obra edo zerbitzuko kontratuen jaitsiera (%-11,8) eta abagunekoa (%-12,5). Prestakuntzarako kontratuek ere beherakada esanguratsua (%-13,7) ezagutu zuten.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

	Kontratuak	Urte arteko aldakuntza (%)					
	2012	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Guztira	657.403	4,1	-5,2	-17,8	5,6	2,2	-6,6
Lanaldi osoko mugagabeak	15.643	31,3	-8,7	-32,0	-7,3	-13,4	5,4
Obra edo zerbitzukoak	134.609	0,7	-11,4	-21,1	8,1	4,0	-11,8
Abagunekoak	148.877	5,1	-9,4	-28,0	11,1	-2,9	-12,5
Lanaldi laburrekoak	249.296	3,3	-1,3	-9,7	5,0	5,0	1,1
Prestakuntzakoak (*)	4.634	-4,2	-13,0	-37,7	8,1	2,7	-13,7
Gainontzekoak	104.344	4,8	7,9	-6,6	-1,9	4,8	-8,9

(*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoaren(SEPE) datuak erabiliz.

Prezioak, kostuak eta soldatak

Inflazioaren presioak oso mugatuak izan ziren 2012. urtean, neurri handi batean eskariak, hala barnekoak nola kanpokoak, ahultasun handia erakutsi zuelako, bizitako atzeraldi egoeraren ondorioz. Halaber, petrolioaren salneurriak nazioarteko merkatuetan portaera neurritsua izan zuen eta horrek inflazioa maila nahiko apaletan eusten lagundu zuen.

BPGaren deflatoarea ez zen salbuespen bat izan eta bi hamarrenetan gutxitu zuen bere gehikuntza tasa aurreko urteko emaitzaren aldean (%1,3 2011n eta %1,1, berriz, 2012an). Adierazle horren moteltzea, aurreko urteetan ez bezala, barne zein kanpo bilakaeraren ondorioa da. Izan ere, inportatutako prezioak energiaren merkatzeaz baliatu ziren eta esportazioen deflatoarea, kanpo merkatuetan lehiakorragoak izateko, %4,9tik %0,7ra murriztu zen.

Kontsumoko prezioei dagokienez, beraien dinamika energiaren prezioen aldakuntzak baldintzatu zituen, baina baita zeharkako zergen eta administrazioak zehazten dituen salneurrien gehikuntzek ere. Urteko batez bestean, %2,3an kokatu ziren, aurreko urtean %3,1era iritsi ziren bitartean. Zehazkiago adierazita, kontsumoko prezioen indizeak, 2012ko lehen erdian maila apaletan egon ondoren eta uztailean balio txikienean (%1,9) kokatu

2012ko urteko txostena

ondoren, gora egin zuten udako hilekoetan, BEZaren irailaren igoerarengatik, baina berriro moteldu ziren urritik aurrera.

DEFLATOREEN BILAKAERA

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
BPGaren deflatoea	3,1	1,0	-1,3	1,3	1,3	1,1
Barne eskariaren deflatoea	2,9	2,2	-0,2	0,8	1,6	1,1
Esportazioen deflatoea	3,4	4,6	-7,9	3,9	4,9	0,7
Inportazioen deflatoea	3,1	6,0	-5,8	2,8	5,0	0,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

Petrolioaren upelaren salneurriak eragin garrantzitsua izan zuen prezioen bilakaera orokorrean. Lehengai horrek baliorik gorena 2012ko hasieran markatu zuen, baina urte amaieran maila askoz ere txikiagoan (110 dolarren inguruan) kokatua zen, hirugarren hiruhilekoan bizi zuen suspertzearen ondoren. Gorabehera horien eragileak, berriro ere, eskariaren eta eskaintzaren aldetiko faktoreen konbinazioa izan ziren. Eskariaren ikuspegitik, munduko ekonomiaren ahultasun esanguratsuak prezioetan izan zuen beheranzko eragina adierazi behar da. Hala eta guztiz ere, aldi berean, eskariak prezioetan eragin zituen jaitsierak konpentsatuta geratu ziren petrolioaren eskaintzaren tentsioekin, Ekialde Ertaineko tentsio geopolitikoak areagotu ziren heinean.

Zeharkako zergetan onartu ziren aldaketek, berriz, inflazioaren nondik norakoak baldintzatu zituzten beste alderdi bat izan zen. Zehazkiago adierazita, lehenago aipatu diren BEZaren tipoen igoerak eta zerga berezien gehikuntzak prezioak nabarmen igotzen lagundu zuten, baina adierazi behar da eragin hori iragankorra dela eta hamabi hileko igaro ondoren desagertuko dela, bigarren itzuliko eraginik ez dagoen bitartean, ekonomiaren bizitasunik eza kontuan hartuta nekez gerta daitekeena.

Azpiko inflazioa, indize orokorra bezala, aurreko urtean jasotako tasa baino gutxiago hazi zen 2012an (%1,5 2011ko %1,8aren aldean), oraingoan ere eskariaren ahultasunaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, iazko azken hilekoetan goranzko joera erakutsi zuen, zeharkako zergen igoeraren ondorioz. Dena dela, aldagai horren portaera indize orokorrarena baino apalagoa

izan zen. Aitzitik, hondar inflazioak, kontsumoko prezioen indizearen osagai gorabeheratsuenak biltzen dituen indizea baita, hazkunde tasa handienak (%6,1) jaso zituen, hirugarren urtez jarraian.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2008	2009	2010	2011	2012	Ekarpena
Inflazioa guztira (%100)	4,1	0,3	1,7	3,1	2,3	2,3
Azpiko inflazioa (%82,6)	3,2	1,1	0,7	1,8	1,5	1,2
KPI Landutako elikagaiak (%13,6)	6,6	1,2	0,7	3,8	3,3	0,4
KPI Industriako ondasunak (%27,7)	0,6	-0,9	-0,2	0,7	0,3	0,1
KPI Zerbitzuak (%41,3)	3,9	2,5	1,4	2,0	1,7	0,7
Hondarreko inflazioa (%17,4)	8,5	-3,6	6,6	9,5	6,1	1,1
KPI Landugabeko elikagaiak (%6,9)	5,0	0,2	0,2	1,5	2,7	0,2
KPI Energia (%10,5)	11,6	-7,3	11,5	15,3	8,3	0,9

Iturria: INE.

Inflazioak 2012an izan zuen moteltzea indize orokorra osatzen duten talde berezi guztien bilakaeran oinarritu zen, salbuespen bakarra landu gabeko elikagaiak zirelako, aurreko hiru urteetan berez nahiko apalak ziren balioak jaso baitzituzten. Hauek goranzko joera bat erakutsi zuten urtean zehar, 2012ko azaroan %3,9ko tasa lortuta, hots, 2008ko irailetik inoiz izan duen mailarik gorena, fruta freskoen eta lekarien eta ortuarien salneurriak igo zirelako, eguraldiak ez baitzuen lagundu uzta ugariak lortzen. Aitzitik, landutako elikagaiak maila altuetan kokatu ziren berriro, baina 2011koak baino txikiagoak izan ziren (%3,3 eta %3,8, hurrenez hurren), azken hilekoetan janaritarako lehengaiak merkatu eta gero. Gainontzeko talde bereziek ere, dagoeneko aipatua izan den energia alorreko merkatze garrantzitsuaz gain, beheranzko joera erakutsi zuten. Izan ere, energiakoak ez diren industriako ondasunen prezioak, urte hasieran hondoa jo eta gero, zertxobait igo ziren, janzteko arroparen eta oinetakoen salneurriek izan zituzten gorabeheren ondorioz, beherapenen eraginarengatik. Azkenik, zerbitzuen prezioek gora egin zuten iazko azken hilekoetan, zeharkako zergen igoerek beraietan ere goranzko eragina izan zutelako.

Inflazioa taldeka zehazkiago aztertzen denean, agerian geratzen da talde gehienek aurreko urtekoak baino gehikuntza tasa txikiagoak jaso zituztela. Hain zuzen ere, petrolio gordinaren

2012ko urteko txostena

bilakaerarekin zerikusi handiena duten taldeek, hots, etxebizitzak eta garraioak, oraindik tasa altuak aurkeztu zituzten (%5,7 lehenak eta %4,3, berriz, bigarrenak), baina 2011koak baino askoz ere apalagoak. Batez besteko tasatik gora, baina aurreko urteko emaitzaren aldean moteltze garrantzitsua erakutsiz, beste talde batzuk ere agertu ziren, hala nola edari alkoholodunak eta tabakoa biltzen dituenak, tabakoaren gaineko zergak aurreko urtean baino igoera txikiagoa izan zuelako.

Beste muturrean, komunikazioak eta medikuntza taldeek 2011ko prezioak jaitsi zituzten berriro. Hain zuzen ere, lehen kasuan %3,4 merkatu ziren prezioak eta bigarreanean urte arteko aldakuntza tasa %-0,7an kokatu zen, kasu horretan botika generikoen erabilera areagotu zelako. Horren ondorioz, dagoeneko sei urtez jarraian beheratu da medikuntzaren salneurria. Beste ekoizkin talde batzuek ere hazkunde neurritsuak eta 2011koak baino txikiagoak jaso zituzten, hala nola jantziak eta oinetakoak (%0,2), hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (%1,0) eta etxeko tresneria (%1,1), eskariaren ahultasunaren ondorioz.

EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2007	2008	2008	2010	2011	2012
Indize orokorra	2,8	4,1	0,3	1,7	3,1	2,3
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,8	6,3	-0,1	-0,7	2,2	2,7
- Edari alkoholodunak eta tabakoa	6,6	4,0	8,4	10,7	9,8	5,8
- Jantziak eta oinetakoak	1,4	0,7	-1,4	-0,2	0,3	0,2
- Etxebizitza	3,6	6,4	1,9	3,1	7,8	5,7
- Etxeko hornidura	3,5	3,0	1,8	0,9	1,5	1,1
- Medikuntza	-0,5	-0,1	-0,2	-0,1	-0,6	-0,7
- Garraioa	2,3	5,7	-5,3	6,5	7,7	4,3
- Komunikazioak	0,2	0,0	-0,6	-0,7	-0,8	-3,4
- Aisia eta kultura	-0,9	0,3	0,3	-0,9	0,3	1,0
- Irakaskuntza	4,5	4,7	4,2	2,2	1,3	2,8
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	4,6	4,6	2,4	1,7	1,7	1,0
- Besteak	3,2	3,4	2,5	2,1	2,7	2,4

Iturria: INE.


Kontsumoko prezioen moteltzea biziagoa izan zen EAEn Europar Batasunean baino, energiaren salneurriak eragin handiagoa izaten duelako autonomia erkidegoan. Horren ondorioz, Europar Batasunarekiko eta Eurogunearekiko inflazio tartea nabarmen gutxitu zen. Hain zuzen ere, Europar Batasunarekiko inflazio tartea hiru hamarrenetan kokatu zen eta Eurogunearekikoa, berriz, bi hamarrenetan, bi kasuetan EAEn aldekoa zelarik.

KPIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


Indize orokorra: EAE




Indize orokorra: Europar Batasuna



Azpiko inflazioa: EAE




Azpiko inflazioa: Europar Batasuna



Iturria: INE eta Eurostat.

2012ko urteko txostena

Inflazioak EAEn portaera hobea izatearen arrazoi nagusia medikuntza, jantziak eta oinetakoak, eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeak taldeen bilakaera apalagoa izan zen. Lehen kasuan, botika generikoak gehiago erabili ziren, eta beste bi taldeetan nabarmena izan zen barne eskariaren ahultasuna. Beste muturrean, energiaren prezioen aldakuntzak gehien kaltetu zituen taldeek diferentzial positiboak jasotzen jarraitu zuten, nahiz eta 2011koak baino txikiagoak izan ziren. Orobat, prezioak gehiago hazi ziren autonomia erkidegoan Europan baino beste atal batzuetan ere, bereziki hezkuntzan, eta edari alkoholdunak eta tabakoa, azken ekoizkin hau gehiago garestitu zelako.



Industriaren prezioei dagokienez, hauek nabarmen moteldu ziren (%2,5 hazi ziren 2012an eta %8,1 aurreko urtean), lehengaien eta, bereziki, petrolioaren salneurrien bilakaeraren ondorioz. IPRI gora egin zuen udan, petrolioaren garestitzearen ondorioz, baina laugarren hiruhilekoan berriro kokatu zen tasa txikiagoetan. Ekoizkin taldeka aztertuta, energiak bakarrik jaso zituen gehikuntza tasa garrantzitsuak, nahiz eta aurreko bi urtekoak baino txikiagoak ziren. Aitzitik, gainontzeko taldeek gehikuntza mugatuko irudia erakutsi zuten, eskari ahuleko egoera bati dagokion moduan.

EAE-KO INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011	2012
Indize orokorra	5,5	-6,0	3,3	8,1	2,5
- Kontsumoko ondasunak	4,2	0,5	0,2	3,1	1,8
- Kontsumo iraunkorrak	3,0	0,1	-0,4	0,6	0,5
- Kontsumo iragankorrak	4,7	0,6	0,5	4,0	2,3
- Ekipamendu ondasunak	2,6	1,4	0,1	1,5	1,2
- Bitarteko ondasunak	3,8	-7,9	3,1	6,5	0,4
- Energia	15,7	-14,6	11,7	21,7	7,8


Iturria: Eustat.

Lan kostuek azken urteetako beheranzko joera galgatu zuten, Estatuan apaltzen jarraitu zuten bitartean, balio negatibotan (%-0,6) kokatu arte. Hala eta guztiz ere, soldaten prezioak mugatuak dira oraindik, ekonomia jarduerak nabarmenki ahuldu delako eta lan merkatuak zailtasun handiak dituelako.


Lan kostuen bilakaera langile bakoitzeko

Urte arteko aldakuntza tasak

Euskadi



Espainia



Iturria: INE.

2012ko urteko txostena

Azkenik, lan hitzarmenetan adostutako soldata igoerek galgatze bat seinalatzen dute azken urtean, hala indarrean dauden hitzarmenen multzoan (%2,7 hazi zen, aurreko urteko 3,6aren aldean) nola, bereziki, urtean zehar izenpetutako hitzarmenetan (%3,4 2011. urtean eta %2,0, berriz, 2012an), ekonomiaren egoerara gehiago egokitzen ari direla iradokiz. Urteko batez besteko igoera KPI indizearena baino zertxobait handiagoa da, baina lan hitzarmenen eragina duten langileak gutxi ziren. Beraz, beharbada benetan ezarri den igoera %2,7 hori baino askoz ere txikiagoa izango zen.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Indarrean dauden hitzarmenak	4,2	5,0	2,7	1,9	3,6	2,7
- Urtean zehar sinatutakoak	4,1	4,8	2,8	1,7	3,4	2,0
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	4,2	5,2	2,8	1,7	3,8	2,7
- Enpresako hitzarmenak	4,2	4,1	2,6	2,4	3,1	2,6

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien aurrekontuetako eragiketa bateratuek agerian uzten dute defizit publikoa murrizteko bideratu diren ahaleginak. Izan ere, diru sarrera arruntek nolabaiteko ahultasuna erakutsi zuten 2012an (%-1,2), BEZarena bezalako zerga igoerak ezarri ziren arren, baina gastu arruntak gehiago jaitsi ziren (%-4,6). Gastuen murrizketaren zati handi bat langile publikoek abenduan kobratzen duten aparteko ordainketa bertan behera geratu izanaren ondorioa da.

Gastuaren ikuspegitik, adierazi behar da atal guztiek, salbuespen bakarrak kapitaleko transferentziak eta finantza gastuak direla, jaitsierak jaso zituzten 2012an. Halaber, finantza gastuak igo ziren arren, aurreko urteko erritmoan baino gutxiago hazi ziren (%22,3 aurreko urteko %70,9aren aldean), interes tasak igo ziren arren. Jaitziera horien artean, inbertsio publikoaren doikuntza ibilbidea (%-12,1), transferentzia arrunten murrizketa (%-6,5) eta langileen ordainketaren jaitziera (%-6,4) nabarmendu behar dira. Lehenengoari dagokionez,

berau egokitu behar zen oinarrizko zerbitzu publikoei eusteko helburuak lehentasuna izan zutelako, baita transferentziak ere, lehentasunezko politikak ekarri baitzituzten. Azkenik, langileen ordainketek, aurreko urteko aldakuntza ia hutsalaren ondoren, behera egin zuten, bereziki administrazio publikoetako langileek diru gutxiago jaso zutelako.

Lehenago aipatu denez, diru sarrerekin lotutako eragiketek, sarrera arrunten atal nagusiari dagokionez, beherakadak jaso zituzten berriro, bi urtez jarraian gehikuntzak lortu eta gero, zergen bidezko sarreraren bilakaera negatiboaren ondorioz. Jaitsiera hori neurri batean konpentsatuta geratu zen kapitaleko sarreraren hazkundearekin (%35,6), aurreko urteetan gertatu zen bezala.

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUKO ERAGIKETAK

Mila euro

	2012	Urte arteko aldakuntza (%)					
		2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. SARRERA ARRUNTAK	13.155.957	11,5	-5,2	-9,9	2,5	3,9	-1,2
2. GASTU ARRUNTAK	12.108.038	10,1	8,1	3,2	-2,8	1,8	-4,6
Langileen gastuak	2.114.078	8,1	7,7	6,3	-0,6	-0,5	-6,4
Funtzionamenduko gastuak	3.760.879	12,6	11,6	10,4	-0,3	0,1	-2,2
Finantza gastuak	269.117	-20,5	-5,3	1,3	79,5	70,9	22,3
Transferentzia arruntak	5.963.964	10,1	6,6	-1,5	-6,0	2,3	-6,5
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	1.047.919	16,9	-54,1	-123,7	199,8	81,4	70,9
4. KAPITALEKO SARRERAK	461.565	-33,2	54,4	16,0	84,8	54,9	35,6
5. KAPITALEKO GASTUAK	1.982.972	11,1	15,0	14,0	-1,1	-22,8	11,3
Inbertsio errealak	755.514	10,4	6,5	4,7	-1,0	-13,2	-12,1
Kapitaleko transferentziak	1.227.458	11,8	23,7	22,2	-1,1	-30,0	33,0
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-473.488	20,7	-137,1	-392,7	31,5	52,7	42,8

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

Zergen diru bilketari dagokionez, sarrera publikoak berriro jaitsi ziren, nahiz eta 2011. urtean baino gutxiago murriztu ziren (%-0,6 eta %-1,9, hurrenez hurren). Azken bost urtean, itunpeko zergak 2010ean bakarrik igo ziren.

2012ko urteko txostena

Bigarren urtez jarraian, zuzeneko zergen bilakaera positiboa izan zen, baina ez zen nahiko izan zeharkako zergen diru bilketaren jaitsiera konpentsatzeko. Hain zuzen ere, 2012an lehenengoak %1,0 igo ziren, baina zeharkakoak %3,6 murriztu ziren. Aurrekoaren ondorioz, diru sarrera publiko guztien multzoa EAEko barne produktu gordin nominalaren %17,3 izatetik 2011n, zertxobait moteldu zen 2012an %17,2 izan arte.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA

Mila euro

	Zergak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2012	2007	2008	2009	2010	2011	2012
PFEZ	4.329.195	13,6	4,5	-12,1	3,8	6,3	0,2
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	4.404.481	7,6	7,0	-3,6	3,4	3,2	-1,0
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	241.769	56,2	31,6	-14,7	-15,6	-3,0	11,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	87.749	27,1	70,6	13,4	2,7	3,1	3,0
- Ondare irabazien atxikipenak	20.110	90,2	-1,0	-56,3	4,8	-19,0	36,1
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa	151.589	4,0	-4,4	-6,4	-1,5	-3,6	-1,9
- Kuota diferentzial garbia	-576.503	27,8	-67,4	-68,5	6,1	17,7	3,8
Sozietateen gaineko zerga	1.131.784	20,2	-16,8	-27,2	-19,9	17,5	-2,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	241.769	56,2	31,6	-14,7	-15,6	-3,0	11,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	87.749	27,1	70,6	13,4	2,7	3,1	3,0
- Ondare irabazien atxikipenak	20.110	90,2	-1,0	-56,3	4,8	-19,0	36,1
- Kuota diferentzial garbia	782.157	15,4	-26,0	-31,6	-23,7	27,3	-7,2
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	32.787	149,2	6,7	-39,4	15,6	-37,5	-60,1
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	89.532	-0,2	7,4	-2,1	-11,9	9,4	16,1
Ondarearen gaineko zerga	115.490	21,4	17,5	-72,6	-92,7	-5,8	---
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	5.698.787	17,2	-1,6	-18,3	-2,5	7,3	1,0
BEZaren bertoko kudeaketa	2.962.490	5,7	-13,3	-13,0	26,1	-10,9	-4,4
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	79.899	1,1	-50,3	-17,7	28,0	-49,4	-18,9
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	41.308	-1,3	-14,3	-17,6	-15,0	-27,8	-29,4
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	17.350	9,5	-36,1	-24,5	-7,6	-27,9	-29,9
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.393.919	6,4	-0,3	-1,4	2,1	-8,3	0,9
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salment. zerga	48.567	3,7	2,1	-3,1	-4,2	-1,9	0,4
Aseguru sarien gaineko zerga	73.818	8,6	-1,3	-5,5	4,3	1,8	-4,6
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	4.617.351	5,4	-12,4	-9,8	16,7	-11,7	-3,6
TASAK ETA BESTE. SARRERAKG UZTIRA	109.708	14,3	-4,0	-11,2	9,1	0,1	-0,4
BERTON KUDEATUTAKO Z/ ITUNDUAK	10.425.846	11,4	-6,6	-14,6	6,4	-2,3	-1,1
BEZaren doikuntza	1.075.769	-2,7	-7,2	-29,6	34,9	-3,8	7,8
Zerga berezian doikuntza	-93.391	-90,8	-15,5	7,3	-9,4	52,6	-57,4
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	11.408.224	9,7	-6,8	-15,9	8,4	-1,9	-0,6

Iturria: Foru Aldundiak.

Analisia zuzeneko zergekin hasita, adierazi behar da hauek ezin izan zutela xurgatu zeharkako zergen jaitsierak, zeren eta atal nagusiak, hots, errentaren gaineko zergak, %0,2 bakarrik areagotu baitzuen bere diru bilketa. Hainbat alderdik azaltzen dute horrelako igoera apal hori, hala nola soldatapeko langile kopurua oso nabarmen jaitsi izanak, langile publikoen ordainketa murriztu izanak eta zerga atxikipena behar duen soldata gordinaren multzoa gutxiago hazi izanak.

Zuzeneko zergen beste osagai handiak, hots, sozietateen gaineko zergak, nabarmen egin zuen okerrera 2011ko emaitzaren aldean (%-2,5 aurreko urtekoa %17,5 izan zen bitartean), ekonomia jarduera behera doala agerian utziz. Enpresek kostuetan doikuntzak egin zituzten arren, emaitzen kontuak ez dira hobetu.

Aitzitik, zeharkako zergen bilakaeran, mota guztiek, zerga bereziek izan ezik, jaitsierak jaso zituzten aurreko urtearen aldean. Izan ere, BEZaren bitartez bildutakoa %4,4 murriztu zen, kontsumo publikoak, etxebizitza berriaren erosketak eta kontsumo pribatuak, azken hau zerga horren osagai behinena baita, erakutsi zuten beheranzko joerak eraginda.

Azkenik, zerga bereziek %0,9 areagotu zuten beren diru bilketa 2011ko emaitzarekin alderatuta, nahiz eta gorakadaren arrazoia ez zen izan zergapetzen diren ondasunen kontsumoa igo izana. Diru bilketaren gehikuntzaren atzean tabakoa eta argindarra bezalako ondasunen zerga egoera zenbait daude.

Finantza arloa


Eurogunearen krisiak eta munduko hazkunde erritmoaren moteltze kezkarriak baldintzatu zuten urtearen zati handiena, baina ekitaldiaren azken hilekoetan finantza merkatuek nahiko portaera ona erakutsi zuten. Gobernuetako agintarien erabakiek eragin zuten hobetzeko bilakaera hori, Ekonomia eta Moneta Batasunaren erakundeak sendotzea erabaki zutelako, baina baita moneta agintarienek ere, moneta politiken laxotasuna areagotu zutelako, finantza arloko egonkortasuna lagunduz.

2012ko urteko txostena


Beraz, uztailetik aurrera, merkatuek Euroguneko arriskuez zituzten iritziak hobera egin zuen, bono subiranoek Alemaniako *bund*-arekin zuten tarte murriztu izanak egiaztatzen duenez. Bilakaera positibo horren oinarrian, Europako Banku Zentralak salerosketako moneta eragiketak iragarri izanaren ondorioa izan zen, baina bide beretik joan ziren banku batasunaren diseinuan lortutako aurrerapenak, Espainiako banku arloaren berregituraketa eta Greziako zorrari buruz lortutako akordioa ere. Diferentzialaren murrizketa are handiagoa izan zen kreditu kalifikazio txikiena jaulki dituzten herrialdeetan, Espainian izan ezik. Hala ere, azken hilekoetan bilakaera hobea jaso zuten, bankuen onbideratzeari esker.

Bund alemaniarrekiko gainkostua Ehunekoak


Espainia




Italia



Grezia



Portugal



Iturria: Espainiako Bankua.

Ekonomia nagusien esku hartzeko interes tasek moneta politikaren laxotasuna areagotu zuten. Izan ere, Europan, Europako Banku Zentralak interes tasa ofiziala %0,75ean, aldatu gabe, uztea erabaki zuen, hurrengo urtean zehar hazkunde erritmoa ahula izango zela aurreikusiz. Orobat, AEBetan, Erreserba Federalak (Fed) interes tasak ezohiko maila baxu batean (%0aren eta %0,25aren arteko urkila batean, alegia) uzteko konpromisoa hartu zuen, enpleguaren hazkundera motela izan zelako eta langabezia tasak altua izaten jarraitu zuelako. Azkenik, Japonia ez zen salbuespena izan eta %0aren eta %0,1aren artean utzi zituen interes tasak, bertako ekonomia sustatzeko asmoz.

Garatzen ari diren herrialdeek, aurreko urtean ez bezala, moneta politika malgutzeko neurriak hartu zituzten, inflazioaren presioak gutxitu zirelako eta beraien ekonomiak galgatzeko arriskua agertu zelako. Horiek horrela, Brasilek eta Hego Koreak 25 oinarri puntutan murriztu zituzten interes tasak, eta Indiak %8an utzi zuen herrialde hartako interes tasa nagusia 2012ko apiriletik.

Banku zentralen erabaki horiek dibisa merkatuetan nabaritu ziren eta euroaren truke tasak balioa galdu zuen diru nagusi gehienen aldean. Orobat, truke tasaren gorabeherak historiako batez bestea baino txikiagoak izan ziren. Dolarrari dagokionez, euroarekiko balioa beti ibili zen 1,30 dolarren inguruan. Truke tasaren egonkortasun horren azpian hainbat arrazoi daude, hala nola banku zentralek onartutako moneta estrategiak, bi lurraldeetako hazkunde igurikimenak aldatu izana eta Eurogunek arriskuaren aurrean erakutsi zuen arbuioa. Yenak, berriz, azken urteetan erakutsi zuen balioa irabazteko joerari jarraipena eman zion.

Hala ere, iazko azken hilekoetan, joera zeharo aldatu zen eta euroak balioa irabazi zuen gainontzekoen aldean, merkatuek Euroguneko egoera fiskal eta ekonomikoari buruz zuten iritsia baikorragoa zelako.


Burtsako indize nagusiek irabaziak lortu zituzten urtea amaitu zenean, salbuespena Espainiako IBEX-35 izan zelarik. Kotizazioen gorakada hori moneta arloko pizgarriak Atlantikoaren bi aldeetan onartuko zirela iragartzeak eragin zuen. Horren ondorioz, errenta aldakorreko aktiboak urte horretako protagonistak izan ziren. Beraien artean, Eurostoxx-50 azpimarratu behar da, %13,8 hazi zelako. Banku batasunaren bitartez finantza egonkortasuna sendotzeak, Espainiako banku sektorearen berregituraketan lortutako aurrerapenek eta Grezia erreskatatzeko egitasmoan adostasuna lortu izanak lagundu zuten emaitza on hori lortzen. Dow-Jones, berriz, ia erdia (%7,3) gehitu zen, amildegi fiskalaren mehatxuak eragin negatiboa

2012ko urteko txostena


izan zuelako AEBetako akzioetan. Azkenik, Espainiari dagokionez, bertako indize nagusiak %4,6 egin zuen behera, baina azken hilekoetan hobekuntza garrantzitsua lortu zuen, espainiar banku arloaren kapitalizazioari esker eta Europako gainbegiratze mekanismoa martxan jarri izanari esker.

EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera Esterlina




Yena



Iturria: Espainiako Bankua.

Aztertzen ari den epealdian, gehiegizko likidezia maila oso altua izan zen eta horrek 12 hilabeterako euriborra izugarri jaistera eragin zuen. Zehazkiago adierazita, interes tasa hori %1,11ra jaitsi zen, aurreko balioaren bederatzita hamarren beherago. Beraz, historiako mailarik apalenetako batean kokatu zen. Halaber, ez zen aldakuntza esanguratsurik jaso hegakortasunean. Are gehiago, 2012ko azken zatian, adierazle hori %0,6aren azpian kokatu zen.

Urte baterako euriborraren bilakaera




Iturria: Espainiako Hipoteka Elkarte.

Espanian eman diren banku maileguen inkestan jasotako erantzunen arabera, azken urtean kreditu eskaintzak behera egin zuen kontuan hartzen diren atal guztietan. Izan ere, alde batetik, kapital eskaerek eta zor subiranoko merkatuetan bizi ziren tentsioek sozietateei maileguak emateko orduan ezarrita dauden irizpideak gogortzen lagundu zuten. Beste aldetik, familiei kontsumorako edo beste helburuetarako eman zitzaizkien kreditu eskaintza gutxitu zen, ekonomiaren egoeraz dagoen igurikimenak okertu zirelako eta kontsumitzaileek kaudimen gutxiago zutelako. Azkenik, etxebizitzak erosteko maileguei dagokienez, zerga arloko aldaketan ondorioz eskaerak areagotu ziren arren, kredituak behera egin zuen, kontsumorako kredituen kasuan aipatu diren arrazoi berberengatik.


2012ko urteko txostena

Kredituen eta gordailuen bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainako Bankua.

Kreditu gutxiago onartu zenez, EAEko arlo pribatuak zorrak gutxitzen jarraitu zuen. Hain zuzen ere, 2011ko kopuruaren aldean, 2.706,9 milioi eurotan gutxitu zuen pilatutako zorra. Jaitsiera hori serie historiko osoan dagoen handiena (%-8,5) da. Zorraren beherakada tamaina handikoa izan zen arren, berankortasuneko tasa berriro hazi zen, 2011ko %3,99tik 2012ko %6,60ra igarota. Datu horiek oraindik ez dira oso kezagarriak, estaldura tasa %92,75era gehitu zelako, neurri batean Euskadiko Kutzak Ipar Kutzarekin bat egin zuelako.

Azkenik, gordailu pribatuek, kreditu pribatuek bezala, beheranzko joerari jarraipena eman zioten eta %3,7ko jaitsiera erakutsi zuten. Murrizketa hori gordailu mota guztietan gauzatu zen, salbuespen bakarra kontu korranteak izan zirelarik. Ageriko gordailuak %21,3 areagotu ziren, finantza sistemaren bilakaerak eragiten duen beldurra eta EAEko aurreztaileek berehalako likidezia duten produktuak nahiago dutela nabarmenduz.